

# hiruka

215. zenbakia  
2025eko urtarrila

# 100 urte

# euskaraz informatzen

**Txirri, Mirri eta Txiribiton**



«Garrantzi-  
tsuena barre  
egitea da»

20-23 | Berbetan

**Mirene Beriain** Altxa Burua

«Ez diogu beldurrik  
izan behar mugak  
jartzeari»

26-27 | Hezkuntza gehigarria

**Naiara Arnedo** Heisenberg

«Pertsonaiak beren  
beharrekin biluzten  
dira obran»

33 | Kultura





Abantaila bereziak nahi dituzu?

Zozketak   Opariak   Egutegia

egin zaitez  
**HIRUKA**lagun!



944 91 13 37 | 688 81 23 68  
administrazioa@hiruka.eus

**hiruka** prentsa euskaraz,  
pentsa euskaraz



# Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Tokiko kazetaritza: herri baten kontakizunaren gordailu
- 10 Herriak
- 20 Berbetan: Txirri, Mirri eta Txiribiton
- 24 Agenda
- 25 Lehen/orain eta Uribitakora
- 26 Hezkuntza gehigarri berezia
- 32 Kultura
- 34 Iritziak eta Horoskopoa
- 36 Kirolak
- 38 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 40 Atzera begira
- 41 Mundukatuak
- 42 Faceguk: Zergatik irakurtzen duzu HIRUKA?
- 43 Zozketak



# hiruka

**HIRUKA kooperatiba elkarte**

**Helbidea:** Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

**e-posta:** hiruka@hiruka.eus

**Telefona:** 944 911 337

**Publizitatea:** Amaia Legarreta

**Erredakzioa:** Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

**Diseinua eta maketazioa:** Artefakto Estudio

**Kudeaketa eta administrazioa:** Ziortza Merino

**Zenbaki honetako kolaboratzaileak:** Koldo Tellitu, Maitane Nerekan, Joanes Atxa, Aritza Bergara eta Arantza Gutierrez.

**Filmazioa eta Inprimategia:** Gertu Inprimategia

**Lege-gordailua:** BI-2022-2014

**ISSN:** 2386-98-95

**Ale-kopurua:** 5.000

**CC-BY-SA**

HIRUKAK ez du zertan bat etorri aldizkari honetan parte hartzen duten kolaboratzaileek adierazitako iritziakaz.

**Erakunde laguntzaileak**



**Getxo**  
bizi ezazu



**Leioa**  
UDALA-AYUNTAMIENTO  
Euskara Zerbitzua



Sopelako Udala



**Plentzia**  
URAREN BIDEAK



Urdulizko Udala



Gortizko Udala



**LEMOIZ**  
DENONA



Barrikako Udala

**Bizkaia**

foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika  
Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua.



## Euskal Selektzioa saskibaloian?



**KOLDO TELLITU** Abokatua eta idazlea

**E**ragile askok urteetan zehar eramandako aldarrikapenek, herriak oro har, bere fruituak eman dituzte euskal pilotan. Baina ezin gara hor geratu, askoz kirol gehiago daude euren euskal selektzioak ofizialtzeko irrikan. Prozesu horretan bada esparru estrategiko bat: federazioak. Haiak eskatu behar dute ofizialtasuna nazioarteko federazioetan; hainbeste pertsona eta eragileren ahaleginak federazioen beharra du ofizialtasunaren aldarrikapena bide onera eramateko.

Datozen hilabeteetan egingo dira federazioetarako hauteskundeak, eta uste dut ezinbestekoa dela euskal selektzioaren alde dauden alderdi politikoei eta bestelako eragileei estrategia argia izatea.

Saskibaloian, duela lau urte, PPko goi kargu politiko batek irabazi zuen, abertzaleak diren herrietan kokatutako hainbat klub botoen ezinbesteko laguntzarekin. Lau urte hauetan ez du ezer egin ofizialtasuna lortzeko, ezta maila sinbolikoan ere.

Gaur egun, Saskibaloiko Federazioko presidentea PPko goi kargu politikoak izaten jarraitzen du, berriro aurkeztuko da, eta estrategia argi eta zehatzik ez badago, boto abertzaleak izango ditu berriro, saskibaloiko euskal selektzioa (baita euskara) beste lau urterako ostrazismora kondenatuz. Ez dugu ezer egingo egoera honen aurrean?

## Euskararen mikromunduak



**MAITANE NEREKAN** Ezertan aditua, askotan aritua

**Z**orionak HIRUKA! Artikulu hau idaztera gonbidatu nauenak esan dit 10 urte betetzen dituzula ale honekin. Ez da gutxi, hamarkadaka zenbatzen baitugu bizitza. Azken boladan euskarak espazio makroak hartu ditu: Muguruzaren kontzertua, *Mitoaroa*... Ekitaldi erraldoi eta epikoak. Ez nator horien kontra egitera, nik neuk gozatu baitut euskararen orgia horietan. Halere, txikitasunaren aldarria egin nahiko nuke, keinu txikiek salbatzen gaituztelako pertsona zein Herri bezala. Esku artean daukazun HIRUKA adibidea da. Herri komunikabide eta euskara elkarteek sartzen digute euskara gure egunerokotasunaren zirrikituetatik. Erresistentzia bikoitza dira, modan ez dauden euskara eta txikitasuna dituztelako ardatz eta, hala ere, bizirik diraute. Tarteka agertzen zaizkigu, ikastetxeko sarreran, tabernetan, mugikorrean, herriko plazan... ta euskara ekartzen digute, hurbiletik. Bertan aurkitzen ditugu aurpegi ezagunak, ekitaldi hurbilak, herriko eztabaida zaharrak... Apaltasunez. Nerabezaroan bidelagun izan nuen abeslari batek, ondokoa esan du: «Ahazten zaigu euskarak mundua edertzen duela». Bizitzaren garratza oso presente dagoen honetan, euskarak bizitzari zentzua ta edertasuna ematen lagundu dezake. Goazen ideia hori lau haizetara zabaltzera. Bitartean, Israeli boikota!

Puntua eta kontrapuntua **HIRUKAk 10 urte**

# Komunitatea

*Zorionak Hiruka mila esker talde, hamar urtez ereiten marrubi ta udare. Euskararen egoera dagoenean grabe, informazioz asetuz jakinmiña suabe; Zer egingo genuke Hirukarik gabe ???!!!*

**GALDER BILBAO MARTINEZ TXAPI**  
Udondo

*Hona heltzea ez da kasualitatea: behar dira lan ona ta borondatea, Hirukalagunak ta babesa ematea... Euskaraz lantzeaz gain errealitatea segi trinkotzen euskal komunitatea!*

**ARRATE ILLARO ETXEBARRIA**  
Getxo





**Lidia Barzena Aurrekoetxea** Herri-mugimenduetako kidea

# «Ni hondartzako ale bat bezala sentitzen naiz, herriko militantea, besterik ez»

**14 urte zituela hasi zen bere aletxoak jartzen Euskal Herriko herri-mugimenduetan. Orduetik gauzak asko aldatu dira, baina borrokak dirau.**

TESTUA: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

**B**arzenaren hitzetan, bera herri-mugimenduetako «aletxo bat» besterik ez da, baina azpimarratu du halako borrokak aurrera eraman ahal izateko ale guztiak direla beharrezkoak. 14 urtegez herriko dinamiketan inplikatzeko hasi zenetik, hainbat kontutan militatzen aritu da bera, hala nola Palestinaren aldekoan, Euskaraldian, Josu Murueta eta Anton Fernandezek omenekoetan edota euskal presoaren aldeko Saren.

«Momentu honetan, Erandiori dagokionez, nire kezkarik larrienen artean etxebizitzaren arazoa dago, Osakidetzaren zaintzaren inguruko ikuspuntua aldatu beharra dagoela ere uste dut eta euskararen erabilerak ere asko kezkatzen nau; arlo horien inguruan mugitzen naiz».

Herriko mugimenduetan ekintzaile bezala hasi zenean, garaiak oso bestelakoak zirela dio: «Hainbat arazo zeuden, oso denbora nahasiak ziren. Oraindik ere kontu asko daude, baina jendearen inplikazioa aldatu egin dela esango nuke; lehen, eguneko 24 orduetan ginen militanteak, eta jipoiak hartu behar bagenituen, hartzen genituen». Horrez gain, kontatu du orduan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ez zela hain agerikoa: «Bakoitzak ahal zuena ematen zuen, ez zegoen bereizkeriarik, edo ez genuen ikusten behintzat; horrek ez du esan nahi mikro-matxismorik ez zegoenik, baina, zorionez, horretan ere garaiak aldatu egin dira».

Etorkizunari buruz galdetuta, ezkor azaldu da Barzena: «Badirudi lortutako aurrerapauso bakoitzagatik beste atzerapauso bat datorrela». Hala ere, jendartearen lorpenik handienak eskubideak direla dio, baina kapitalismoaren, lobby ekonomikoaren eta eskuin muturreko pentsamenduen eraginez, horiek ere arriskuan daude: «Nekatzeko eskubidea badaukagu, baina borrokatzeko arrazoi asko daude oraindik, beraz, egin dezakeenak, egin dezala». ◀



# Tokiko kazetaritza: herri baten kontakizunaren gordailu







**HIRUKA komunikazio-taldeak 10 urte bete dituen honetan, bere aurrekariak izan diren proiektuei begira jarri eta horien zein, orokorrean, Euskal Herriko euskarazko gainontzeko tokiko komunikabideen hastapenak aztertu ditugu. Horretarako, Libe Mimenza Euskal Hedabideen Behategiko koordinatzaileak azaldu dizkigu hiru hamarkadan izandako gakoak eta erronkak.**

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO**

ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶


**D**aborduko 10 urte bete dira HIRUKA Uribe Kostako euskarazko komunikabideak bere lehenengo agerraldia egin zuenetik. Hala ere, ez zen eze-rezetik sortu, *Santa Mariñe* (Urdu-liz eta Sopela, 1992-1999) nontzebarriaren eta *Bizarra Lepoan* (Getxo, 1995-1999) aldizkariaren bidea jarraitu zuen *UK* hamabostekariaren (Uribe Kosta, 1999-2014) eta *ukberri.net* agerkari digitalaren (Uribe Kosta, 2003-2014) batuketaren emaitza izan

baitzen, baita *Koska* irrati autogestionatuarena ere, azkenean uhinetara salto egiteko bideak kale egin zuen arren. Gauzak horrela, 10 urte bete ditu HIRUKAK, baina Uribe Kostan gertatzen denaz informatzeko lanek 30 urte baino gehiago diraute.

Zailtasunak zailtasun, hamarkada horietan, euskarazko tokiko kazetaritzak garatzen eta sendotzen jarraitu du, unean uneko erronkei aurre eginez, egokituz eta aurrera egiteko grianaz. Baina, zelakoak izan dira denbora-tarte horretan HIRUKAK –eta bere aurrekariak– zein Euskal Herriko gainontzeko euskarazko tokiko komunikabideek bizi izandako aldaketak, eta zeintzuk aurrera begirako gakoak? Libe Mimenza Euskal Hedabideen Behategiko koordinatzaileak aitortzen du aldaketa «asko» gertatu direla denbora tarte horretan, «ezinezkoa da guztiak aipatzea», baina hiru fase nagusi nabarmentzen ditu: euskarazko komunikabideen sorreraren hastapenak, profesionalizazioa eta XXI. mendeko iraultza digitala eta Internetaren goraldia.

**HIRU HAMARKADAKO BILAKAERA.** XX. mendearen bukaeran abiatu zen gaur egun ezagutzen dugun euskarazko komunikabideen sektorea, eta herri ekimenari eta euskara elkarteei esker plazaratu ziren proiektu asko, eskualdekoak kasu. Tokiko komunitateetan erroak sendotu dituzten hedabideek euskara sustatzeko tresna eraginkor bihurtu ziren, eta paperak zuen





protagonismoa nabarmena zen. Aldi horretan, baliabide ekonomiko urriekin lan eginda ere, komunikabideek herritarren babesa lortu zuten, eta horrek bide eman zien proiektuari eusteko eta bizirauteko.

Bigarren etapa proiektu horietako langileen profesionalizazioari lotuta dago. Mimenzak azaltzen duenez, komunikabideen inguruan sortutako komunitate sendoak eta hedabideen kudeaketa profesionalak sektorearen heldutasuna ekarri zuten. Ordura arte boluntarioen lanagaz aurrera egiten zuten proiektuek egitura sendoagoak sortu zituzten, eduki hobek askaini eta audientzia zabaltzeko. Profesionalizazioak, hala ere, propio ekarri zituen erronka berriak, hala nola baliabide ekonomiko handiagoen beharra.

Azkenik, XXI. mendeko iraultza digitalak sektorea errotik aldatu zuen, eta eraldatzen jarraitzen du. Interneten eta teknologia berrien hedapenak komunikabideen kontsumitzeko moduak hankaz gora jarri ditu. Sare sozialak eta plataforma digitalak funtsezko bihurtu dira, eta, aldi berean, horiekiko menpekotasunak erronka berriak sortu. Tokiko



## hiruka



**HIRUKAK bere ibilbidea 2015ean hasi bazuen ere, Uribe Kostako tokiko euskarazko komunikabideen abentura 1992an hasi zela esan daiteke, Urduliz eta Sopela lantzen zituen Santa Mariñe nontzebarriagaz eta, ostean, Bizarra Lepoan, UK eta ukberri.net proiektuakaz.**

hedabideek, hala nola HIRUKAK, aukera horiek baliatu dituzte publiko berrietara iristeko, baina egoera ekonomiko zaila eta teknologiaren egokitzapena oztopo bihurtu dira kasu askotan.

**MASS MEDIATIK «NI» MEDIARA.** XX. mende osoan nagusi izan ziren masa komunikabide tradizionalen aroa amaitu da; egunkari, aldizkari, FM bidezko irrati eta telebistek zabal-kundearen hegemonia galdu dute: «Mass mediatic 'ni' mediara pasa gara, sare sozialen, algoritmoen eta korporazio handien arora». Hala, teknologia horiek baldintzatzen dituzte gaur egun kontsumitzaileen bizitzak eta, ondorioz, baliabide digitalak erabiltzea beharrezko bihurtu da publikoarengana heltzeko: «Sareak kakaztuta daude, gero eta gehiago, baina dena ez da kaka: horiek gure alde erabiltzea dagokigu, mobilizatzeko eta komunitatean garrantzitsuak izateko».

**KAZETARITZA GARAIKIDEAREN ERRONKAK.** Gaur egungo kazetaritzak zurrumbilo mediatico betean egiten du lan; inoiz baino komunikabide eta komunikatzeko bide gehiago dago, eta horrek erronka handiak dakartza, bai kazetariarentzako, zailtasunak baititu publikoarengana ailegatzeko, bai kontsumitzailearentzat ere, askotariko mezuak jasotzen baititu uneoro. Horrez gainera, digitalizazioak komunikatzaileen jarduna irauli zuen bezala, adimen artifizialak (AA) agerraldi garrantzitsua egin du orain. Hala, Mimenzak iragarri duenez, komunikabideentzako hurrengo erronka AAgaz «asmatzea» izango da. Testuak, irudiak eta bideoak sortzeko gaitasuna duten erremintak komunikabideen baliabide mugatuak indartzeko aukera eskaintzen dute, baina horien erabilera arduratsua eta etikoki zuzenak ezinbestekoak izango dira etorkizun laburrean.

Halaber, orain arte komunikabide askoren oinarria izan den paperezko euskarriaren rola

## Kazetarien erramintek ere eboluzioa izan dute

90ko hamarkada

2000ko hamarkada





aldatu egingo da. Mimenzaren ustez, paperak eutsiko dio, baina haren erabilera, forma, eta maiztasuna eraldatuko dira. Paperezko argitalpenek kalitatezko edukiak eskaini beharko dituzte, prestigioa nolabait mantenduko dutena. Izan ere, Behategiko adituaren arabera, euskarria baino, garrantzitsuagoa izango da kalitatezko edukiak lantzea, «interesgarriak, esanguratsuak eta bizi dugun mundua ulertzeko baliagarri zaizkigunak egitea».

Herritarrekiko hurbiltasuna mantentzea ere izango da gakoetako bat. Tokiko hedabideek herritarren beharrei erantzuten jarraitu behar dute, gertuko eta fidagarri izatearen balioak indartuz. «Tokiko hedabiderik gabe, herri honen kontakizunaren zati bat faltako litzateke. Herri-informazioaren jagole dira». Izan ere, tokiko hedabideek herri baten kontakizuna gordetzen dute; Mimenzak azpimarratzen duenez, «tokian tokiko gertaera, pertsona eta elkarteetatik oso hur egonda, gertuko informazioa landu eta hurbileko komunitateak osatzen dira». Pandemia garaian, gainera, hori inoiz baino ageriago gelditu zen, herritarrek gertuko informazioa eskatzen zutelako eta, ondorioz, tokiko hedabideen audientziek gora egin zuten: «Jendeak gertuko informazioa eta erreferentziak hobetsi zituen».

**EUSKARA.** Tokiko gertakarien berri emateaz gainera, tokiko komunikabideen ezaugarrietako bat izan da euskararen erabilera, horixe izan baita hasiera-hasieratik izan duen helburu nagusietako bat: hizkuntzaren biziberritzea. Mimenzaren arabera, «ekarpen garrantzitsua» egin da arlo horretan, baina, gogoratzen duenez, hori errealitate soziolinguistiko eta ekimen zein politika ezberdinek baldintzatutako prozesu bat da eta, ondorioz, herri edo eskualde batzuetan «arrakastatsua» izan da hedabideek egindako bidea.

Alabaina, Mimenzak nabarmentzen du euskarazko hedabideek «marratzen» dutela,



Hamar urteotan HIRUKA aldizkariaren formatua eta maiztasuna aldatzen joan dira.

**«Paperak eutsiko dio, baina haren erabilera, forma, eta maiztasuna eraldatuko dira. Paperezko argitalpenek kalitatezko edukiak eskaini beharko dituzte, prestigioa nolabait mantenduko dutena»**

LIBE MIMENZA  
EUSKAL HEDABIDEEN BEHATEGIA

«egunero-egunero», euskaratik eta euskaraz bizi den mundua: «Zuek gabe ez da». Dena dela, gaur egun, komunikabideon helburu nagusia herritarrek konektatu eta ezinbesteko izaten jarraitzea da, «garaia galdegiten dituen eskakizun sozial, teknologiko, ideologiko zein soziolinguistiko gutzietan erantzunda».

**ETORKIZUNARI BEGIRA.** Tokiko euskarazko komunikabideak garatzeko aliantza estrategikoak eta laguntza-sare sendo bat behar dira uste du Mimenzak, «errealitate eta behar ezberdinei elkarrekin aurre egiteko, taktika eta abiadura ezberdinekin bisioak hauspotzeko eta arazo komplexuei erantzun komplexuekin erantzuteko... Finean, etorkizunean nahi dugun komunikabide-sarea marrazteko». Ildo horretan, Tokikom sarearen papera garrantzitsua dela nabarmendu du; izan ere, horretan daude Euskal Herriko 78 toki komunikabide, HIRUKA barne. ◀

2010eko hamarkada

2020ko hamarkada





## Getxo Gazteria

### Gazteentzako hiru ikastaro antolatu ditu Gaztebulegoak

**G**azteria Zerbitzuko Gaztebulegoak hiru ikastaro antolatu ditu 2025eko lehen seihilekorako. Doako tailer horiek 16 eta 30 urte arteko neska-mutilei zuzenduta daude, eta daborduko horietan izena eman daiteke, 944 660 353 telefono zenbakira deituta, 688 880 985 WhatsApp-a bidalita edo gaztebulegoa@getxo.eus-era mezu bat igorrita.

Lehenengo, «Tailer artistikoa: pegatinak + imanak», martxoaren 22an, zapatuan, izango da, euskaraz eta gaztelaniaz. Tailerra 10:00etatik 14:00etara izango da, Algortako Sekula Studioan (Telletxe kalea, 15).

Bigarrena, «Lehen sorospenak», apirilaren 5ean, zapatuan, izango da, gaztelaniaz, Romo Kultur Etxean, 10:00etatik 14:00etara. Bertan, lehen laguntzako oinarrizko teknikak aplikatzen irakatsiko zaie gerturatuko diren gazteei, hala nola bihotz-biriketako bizkortzea (BBB), desfibriladore baten erabilera eta Heimlich maniobra.

Hirugarren eta azken ikastaroa, «Elikagai-manipulatuzailea», txanda bitan egingo da RKE. Lehena, maiatzaren 27an, martitzena, 16:00etatik 19:00etara, euskaraz; eta bigarrena, maiatzaren 30ean, barikua, 16:00etatik 19:00etara, gaztelaniaz. Ikastaroa amaitzean, dagokion ziurtagiria emango dute. ◀

## Getxo Diru-laguntzak

### GLLak justifikatzeko epea otsailaren 28ra arte luzatu du Udalak

**O**tsailaren 28ra arte luzatu du Getxoko Udalak 2024 urteari dagozkion GLL –Gizarte Larrialdietarako Laguntza– guztiak justifikatzeko epea. Gastuak egin behar dira justifikatzeko epea amaitu aurretik. Diru-laguntzak justifikatzeko emandako kontzeptuaren ordainagiriak, fakturak edota enpresa hornitzaileek emandako kontsumo-ziurtagiriak, betiere eman diren kontzeptuei buruzkoak.

Udalak gogoratu du beharrezkoa dela jasotako laguntzen justifikazioa behar bezala egitea, hori ez egitekotan, Udalak itzultze-prozesua martxan jarriko duelako. Eskatutako agiriak norberari dagokion Gizarte Zerbitzuen bulegoan aurkeztu beharko dira. ◀

## Getxo Emakumeen Etxea

### GUrari Etxea inauguratuko dute urtarrilaren 22an

**Espero zena baino beranduago bada ere, Udalak iragarri du urtarrilaren 22an irekiko dituela atea Getxoko emakume guztien etxea izango denak.**



Emakumeen etxearen barrualdea, infografia baten arabera. GETXOKO UDALA

**B**idezabal metro-geltokitik hur, Benturillena kalean, Getxoko Udalak hutsik zuen lokal bat eraberritu eta udalerriko emakumeen lehenengo etxea izango dena inauguratuko dute urtarrilaren 22an, 19:00etan.

Berdintasun Sailak zehaztu duenez, Getxoko hainbat esparrutako 50 bat emakumek osatutako talde eragile batez egindako partaide-tza-prozesua «luzea eta aberatsa» izan da, eta helburua da emakume guztien topaleku eta erreferentzia-zako gune feminista izatea.

Prozesuan parte hartu duen eragileetako bat izan da Bilgune Feminista, eta, horren iritziz, «bazen garaia» etxea irekitzeko. Izan ere, deitoratu du irekiera asko atzeratu egin dela, eta bidea «luzea» izan dela, baita «oztopoz» beterikoa ere. Hala ere, aurrera begira jarri eta iragarri du oraingo lehentasunak direla gunea «habitatu, erabili, be-

rotu, koloreztatu, askatu, gozatu eta zaintzea», eta horretan jarriko direla eragile feminista horretako kideak, «harrokeriarik gabe, feminisotik, euskaratik, ezkerretik, klasismorik eta zapalketarik gabe, apal eta zintzo, inurri eta armiarma lanetan jarraituko dugu».

Udal-iturriek azaldu dutenez, 2017an egindako hausnarketa bati jarraituta heldu zioten emakumeen etxea sortzeko prozesuari. Horren oinarriak «definitzeko» asmoz, udalerriko emakumeen elkarlana sustatu gura izan zuen Berdintasun Sailak eta, ildo horretan, talde eragilea osatu zuten 2022an. Horrek hainbat tailer egin zituen, azpiegitura berriak izan beharko lituzkeen balioei eta printzipioei buruz hausnartzeko, besteak beste.

Handik urte bira, 2024an, emakumeen etxeari GUrari Etxea izena jarri eta logoa aukeratu zuten. Orain, atea irekiko dute, urtarrilaren 22an. ◀



## Leioa Behargintza

# Langabeentzako bederatzi ikastaro eskainiko dituzte

**2025eko urtarrila eta ekaina bitartean, Leioako Udalak eta Behargintzak langabeentzako askotariko bederatzi prestakuntza-ikastaro eskainiko dituztela iragarri dute.**

**E**nplegarritasuna hobetzeko eta laneratzea sustatzeko, 131 plaza eskainiko dituzte hainbat lanbide-arlotan.

Besteak beste, lehen sorospenak eta bihotz-biriketako bizkortze ikastaroa eskainiko dute otsailean, 15 plazagaz. Enpresak sortu eta kudeatzeari buruzko jakintzak bereganatu gura dituztenek aukera bikoitza izango dute otsailean eta ekainean egingo dituzten saioakaz; guztira, 40 pertsonentzako plazak izango dituzte horietan. Martxoan, Hazilan+ programari esker, 15 ikasle lan-merkatuan sartzeko trebetasunak jaso eta enpresetan praktikak egiteko aukera izango dute. Hil be-

rean, 10 plazako ikastaroa eskainiko dute *data management* eta sinadura elektronikoa buruzko hainbat kontu ikasteko. Aldiz, dro-neak maneiatzeari buruzko ziurtagiri profesionala eskuratzeko prestakuntza apirilean egingo dute, 12 plazagaz. Ikastaro horiek teoria eta praktika uztartuko dituzte, hainbat sektoretan laneratzea erraztuko duten egungo eta berariazko tresnak emateko.

Izena emateko epea daborduko zabalik dago, eta izapideak eta eskaintzaren inguruko informazio guztia Behargintzaren webgunean edo, zuzenean, Mendibile 3ko egoitzan eskuratu daitezke. ◀

## Leioa Kultur Leioako agenda

# Antzerkia, dantza eta musika nagusi, urtarriletik martxora

**K**ultur Leioako programazioak 18 musika emanaldi, antzerki eta dantza-ikuskitzuna, 41 zinema-emanaldi eta hiru erakusketa eskainiko ditu urtarriletik martxora bitartean doan programazioan. Arduradunek azaldu dutenez, familia osoarentzat egokiak diren proposamenak sartu dituzte programazioan, hala nola Zirkozaurerren zirku-ikuskitzuna, Pepe Viyuelaren *Guitón Onofre* antzerki klasikoa eta Leticia Dolerak zuzendutako *Marcela, una canción de Cervantes*.

Horiez gain, 41 zinema-saio ere eskainiko dituzte urtarrilaren 7tik aurrera. Horien artean, 10 haur-saio ere izango dira aste-akabuetan, 17:30ean, eta Menditour Mendi Film Festival jaialdiko Mendi Astea ziklo bereziak ere barne hartuko dituzte.

Erakusketei dagokienez, hiru izango dira 2025eko lehen hiruhilekoan: La Vaca Pinta tailerreko ikasleek egindako lanak, Igone Mariezkurrenaren *Los cauces del Indus* lana eta akuarela-tailerreko ikasleen erakusketa kolektiboa. Programazioari buruzko informazio eta hitzordu guztiak [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com) atarian kontsultatu daitezke. ◀

## Leioa Familian programa

# Euskara-ohiturak indartzeko Familian ekimena bueltan da

**M**aiatzera bitartean, lau tailer egingo dituzte etxean euskararen erabilera indartu gura dituzten familientzat. Zehazki, 4 eta 8 urte arteko umeak dituzten familia euskal mistoei –gurasoetako bat euskalduna dutenak– bideratuta egongo diren jarduerak izango dira. Horiek hilean behin egingo dituzte, 17:30ean, Kultur Leioan, eta hizkuntza ohituretan eragitea izango da helburua, euskararen erabilera bultzatzeko eta harreman sareak ehuntzeko; horrenbestez, jarduera guztiak euskara hutsean egingo dituzte. Lehen jarduera urtarrilaren 17an izango da: itzal txotxongiloen laborategia. Otsailaren 14an, inauterietako mozerroak egingo dituzte; martxoaren 14an, neoiakaz jolasak, eta, azkenik, maiatzaren 16an, graffiti tailerraren txanda izango da. ◀



## Zuhaitzak berrituko dituzte.

Leioako San Bartolome auzoko Basañese kalean gaixo dauden hamar zuhaitz ordezkatuko dituztela jakinarazi du Udalak. Horien ordez beste espezie bateko aleak jarriko dituztela ere jakinarazi dute. ARGAZKIA: AINARA TRIGUEROS



**Erandio** Erasketa-lanak**Cables y Alambres lantegia botatzeko lanak abiatu dituzte**

**E**randioko hiriguneko aldatetek aurrea jarraitzen dute eta, iragarri bezala, Cables y Alambres lantegia eraisteko lanak abiatu dituzte urtarrilean. Udaleko iturriek azaldu dutenez, lanak hilaren 14tik 31ra doazen gauetan egingo dituzte, segurtasun arrazoiengatik eta metro-zerbitzuari ez eragiteko; izan ere, botako duten lantegia trenbidearen ondoan dago. Zehazki, beharginak eta makinak 23:00etatik 06:00etara egongo dira lanean. Lantegiagaz batera, hirigintza-egitasmoa aurrera eramateko, aldamenen dauden 30 bat etxebizitza ere botako dituzte, horietako asko ordenaziotik kanpo ei baitaude.

Erandioko Udalak eta lantegiaren jabetza duen CAESAko konkurtso-administrazioak, lehengo Cables y Alambres enpresak, sinatu zuten hitzarmenak 356 etxebizitza aurreikusten ditu bertan. % 60 inguru sustapen librekoak izango dira eta gainontzeko % 40ak babesekoak. Gainera, 32.739 metro koadroko aire libreko eremuak ere egin gura dituzte, hau da, azaleraren ia % 82a. Zuhaitz-landaketari dagokionez, azaldu dutenez, legeak ezarritakoak baino % 15 gehiago landatuko dituzte, 700 inguru, hain zuzen ere. ◀

**Erandio** Berritze-lanak**Josu Murueta plaza eraberritzeko lanak hasi dituzte Astrabuduan**

**U**rtarrilaren 13an hasi zituzten Josu Murueta plaza eta bere ingurua berurbanizatzeko lanak. Obrek gutxienez bost hilabete iraungo dute, eta, besteak beste, zoladuraren berritzea, berdeguneen handitzea eta irisgarritasunean hainbat hobekuntza aurreikusten dituzte. Horregaz batera, Udalak iragarri du Etxegorri kalean zurezko hiri-altzariak ere jarriko dituztela, eta auditorioa berrituko dutela eskailetan egurrezko eserleku berriak jarri.

Lanen hesiek plaza, aurreko espaloiak eta Karl Marx kalea hartuko dituzte, esku-hartzearen ondoren oinezkoentzat izango dena. Udaleko iturrien arabera, «ingurune irisgarriagoa, iraunkorragoa eta guztiontzako atseginagoa sortzea da helburua». ◀

**Erandio** Altzagaren eraldaketa**Jado ikastetxea Tartangara lekualdatu gura dute**

**Erandioko Udalak eta Jado Fundazioak adostutako hitzarmenaren arabera, Geltoki kaleko eraikinean nagusien egoitza bat egin gura dute, eta berdegune bat eta kirol-instalazioak Tartangako lursailean.**



Jado Fundazioak Udalari lagatako lurren etorkizuneko fotomuntaketa. EU

**A**ltzagan dituen eraikin biak batzeko asmoa iragarri du Jado ikastetxeak: Geltoki kalean dagoen eraikinari beste erabilera bat eman eta hezkuntza-eskaintza guztia Tartangara eraman gura dute. Aurreratu dutenez, nahi hori gauzatzeko aukera desberdinak aztertzen ari dira, besteak beste, eraikin berria egitea.

Bitartean, Jado Fundazioak eta Erandioko Udalak egitasmo horren inguruko hitzarmena adostu dutela iragarri dute, eta, desjabetzea ekiditeko, Fundazioak Tartanga kalean dituen lurak -3.500 metro koadro, ikastetxea izan ezik- Udalaren jabetzora pasatuko dira.

Era berean, Geltoki kaleko eraikinean nagusientzako egoitza bat edo eguneko zentro bat ireki gura dutela adierazi dute. Geltoki kaleko lurzoruen erabilera-erregimena alda-

tu ahal izateko arau subsidiarioen aldaketa puntual bat beharrezkoa izango dela ere aurreratu dute.

**PARKE BERRIA.** Udalak bereganatuko dituen Tartangako lur horietan berdegune bat, aisialdirako eremua edo kirol-jardueretarako instalazioak jartzeko aukerak iragarri ditu, baita aire zabaleko igerilekuak ere. Helburua da Altzagako alde horretan lorategiz eta zuhaitzez hornitutako berdegune bat egitea, adierazi du Aitziber Oliban alkateak behin baino gehiagotan.

Hala ere, oraindino ez dago eremu horretarako egitasmo zehatzik, eta Udalak iragarri du bertan zer egin erabakitzekeo prozesu partehartzaile bat ere abiatu gura dela. Dena dela, ezer egin baino lehen lurzoruen deskontaminazio prozesua egin beharko dute, oraindino lantegiak baitaude bertan. ◀



Sopela Udal-kiroldegiko kontratua

# Kiroldegiko tarifak eguneratuko ditu Udalak

**Kiroldegiko tarifak % 5 igoko dira eta txikigunekoak % 2. Hala onartu zuen Sopelako Udalbatzak, 2024ko abenduaren 27ko osoko bilkuran.**



BPXportegaz duen kontratua aztertzen ari da Udala. SOPELAKO UDALA

Sopelako udal kiroldegiko tarifetan eguneraketak egin ditu Udalak, egun instalakuntzak kudeatzen dituen BPXport enpresagaz indarrean dagoen kontratua beterik. Guruzne Carrason alkatearen esanetan, «Udalak BPXportegaz indarrean duen kontratua bete behar du, edozein ez-betetzek ondorio kaltegarriak ekar baititzake Udalarentzat». Egun, beragaz duen kontratu hori aztertzen ari da Udala. Hori polemika handiz onartu zen aurreko legealdian, eta 15 urteko iraupena du, 5 urte-

ra luzatzeko aukeragaz. Inbertsio handiak egin behar ziren, bai Abadesolon, bai Urkon, baina enpresa esleipendunak inbertsioen atal hori bete ez zuenez, Udalak formalki eskatu zion BPXporti urrian inbertsio-plan alternatibo bat aurkezteko. Orain, plan hori bideragarria den ikusiko du Udalak eta egungo kontratua alda daitekeen aztertzea da asmoa. Ezezkoa bada, proposamena da kontratua bertan behera uztea alde biek adostuta, eta zerbitzua bermatzea beste lizitazio bat atera arte. ◀

Sopela Etxebizitza eskubidea

# Emakume bat etxetik botatzea salatu du Etxebizitza Sindikatuak

Pasa den abenduaren 30ean, Sopelako emakume bat bere seme adingabeagaz batera etxetik bota zutela salatu du Uribe Kostako Etxebizitza Sindikatu Sozialistak. Antolakundeak nabarmendu du familia horrek ez duela alternatiba errealik izan, eta, hala eta guztiz ere, etxegabetua izan dela. «Zerbitzu publikoek oraingoz eskaini dioten bakarra ostatu batera joatea izan da», deitoratu du sindikatuak. Halaber, Euskal Herrian urtero gertatzen diren ehunka «isilpeko etxegabetzeen» beste adibide berri bat dela nabarmendu du. Hori dela eta, etxegabetze-mota guztien aurka borrokatzeko beharra azpimarratu du. ◀



Sindikatuak publikoki salatu du egoera.

**IKASTOLAK**  
Eskolaz kanpoko ekintzak

**HAMILTON**  
Play-School

**Enpresak**

**ON LINE**  
**ESKOLAK**  
Teknologian oinarrituta

**INGELESA**  
**ALEMANIERA**  
**FRANTSESA**

Taldeak, enpresak eta partikularrak  
Eskolaz kanpoko ekintzak  
Maila guztiak  
Ingelesa hiru urtetik aurrera  
Talde txikiak  
Inglaterran egonaldiak

**hamilton**  
**IDIOMAS**

SOPELAN, Sipi 11.  
946 763 012 - info@hamiltonidiomas.com  
www.hamiltonidiomas.com

**Telegram**  
**kanala**

Uribe Kostako informazioa zure eskura!



**Barrika** Udal-ordenantza berria**Etxeko animalien babesa eta ongizatea bermatu guran**

**B**arrikako Udalak pauso bat eman du etxeko animalien babesa eta ongizatea bermatzeko, baita horien edukitzea arduratsua sustatzeko ere. Helburu horregaz, etorkizuneko Udal Ordenantzaren kontsulta publikoa ireki du. Araudi berria, txakurrak, katuak eta hudoak bezalako etxeko animaliei aplikatuko zaie, baina baita laguntzaile eta exotikoak diren animaliei ere, aisialdirako eta konpainiarako mantentzen direnei.

Ordenantza berri honek, gainera, arrisurtsuak izan daitezkeen animalien edukitzea arautzeko espezifikotasuna ere jasoko du.

Herritarrek eta erakundeek aukera izango dute euren iritzia emateko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 133.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. 20 eguneko epea dute, Udalaren webgunean iragarkia argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, galdetegi baten bidez ekimen honi buruzko ekarpenak egiteko. Iragarkia hilaren 7an publikatu zuten.

Parte-hartzaileek honako alderdiak baloratu ahal izango dituzte: arauak konpondu gura dituen arazoak, onartzeko beharra, helburuak, eta bestelako aukera arautzaileak. ◀

**Lemoiz** Armintza Pilota Elkartea**Pilotako azken emaitzak gorabeheratsuak izan dira Armintzan**

**U**rtea hainbat pilota partidugaz hasi du Armintzako Pilota Elkartea. Iruñean egin zuten Euskal Herriko lehenengo jardunaldia eta 1-1 berdindu zuen Amayagaz, hurrengo emaitzakaz: larruzko paletan, Amayak 35, Armintzak 22; pala motzean, Amayak 26, Armintzak 40. Espainiako Txapelketari dagokionez, Bartzelonan jokatu zuten lehenengo jardunaldia ere, Natacion Bartzelonaren kontra 2-0 galdu zuten; hurrengoak izan ziren emaitzak: larruzko paletan, Bartzelona 15-15 eta Armintza 10-5. Pala motzean, Bartzelona 15-15 eta Armintza 9-7. Beraz, urte hasiera honetako partidua gorabeheratsuak izan dira Armintzako pala jokalarientzako. ◀

**Berango** Mugikortasuna**Bizikletak uzteko BiziPark bi inauguratu dituzte Berangon**

**Instalazio horiek Gobelalde Bidea 10ean (16 plaza) eta Simon Otxandategi Etorbidea 128an (8 plaza) daude, eta 75.000 euroko inbertsioa behar izan dute.**



**BiziPark estazio berrietako bat. BERANGOKO UDALA**

**B**izkaiko Foru Aldundiak BiziPark berri bi inauguratu zituen abenduan Berangon, mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua eginez eta txirindularientzako garraio segururako aukerak zabalduz. Instalazio horiek Gobelalde Bidea 10ean (16 plaza) eta Simon Otxandategi Etorbidea 128an (8 plaza) daude, eta 75.000 euroko inbertsioa behar izan dute, Aldundiak oso-osorik finantzatuta.

Sonia Perez Ezquerria Garraio, Mugikortasun eta Turismo diputatuak aparkaleku horien garrantzia azpimarratu du, lurralde-estrategia integral baten testuinguruan. «Foru Aldundiak bultzatutako bizikleta bidezko mugikortasun-baliabideek erreferentziazko lurralde bihurtu gaituzte, Estatuan zerbitzu mota horren hazkunde azkarrenarekin», baieztatu du. «BiziPark berri bakoitzarekin, Bizkaia iraunkorragoa, seguruagoa eta konektatuagoa eraiki-

tzen ari gara, non bizikleta garraio pribatuaren alternatiba erreala eta irisgarria den. Apustu horrek herri guztiak hartzen ditu, handiak zein txikiak, udalerrri bakar bat ere mugikortasun garbiago eta eraginkorrago baterako eraldaketa horretatik kanpo geratzen ez dela bermatzeko».

Bestalde, Itziar Aguinagalde alkateak azpiegitura horiek tokiko komunitatearentzat duten garrantzia azpimarratu du: «Instalazio horiek gure bizilagunen eguneroko mugikortasuna errazten dute, bizikletaren erabilera garraio bide gisa indartuz. Gainera, dagoeneko garatzen ari den Bizikleta Planarekin lotzen dira, herritarrek 2024ko partaidetza-aurerokuntzetan babestu zutena eta 2025eko hasieran gauzatuko dena».

BiziPark berri horiek erabili ahal izateko, auzokideek izena eman behar izan dute urtarrilaren 15a baino lehen. Izen-emateak lekuak baino gehiago badira, zozketa bidez esleituko dituzte plazak. ◀



**Urduliz** Ingurumenaren suntsipena

# Urdulizko zuhaitzen kontrako erasoak salatu ditu Udalak

**Udalak herriko hainbat zuhaitzen argazkiak partekatu ditu bere sare-sozialen bidez, eraso hauek «ekintza bandalikoak» direla azpimarratuz.**



Kaltetutako zuhaitzetako bat. URDULIZKO UDALA

**U**rdulizko Udalak deitoratu du herriko hainbat zuhaitz moztuta agertu zirela 2024ko urte akabuan. Horregatik, ekintza horiek publikoki salatu ditu «ingurumen delitua» dela nabarmenduz; izan ere, azaldu

duenez, zuhaitzok mozketak horientatik lehortu eta hil daitezke. Iragarri du Ertzaintzaren bulegoan salaketa jarriko duela ikerketa bat irekitzeko asmoagaz. Era berean, herritarrei laguntza eskatu die, eraso horiek berriro gerta ez daitezen. ◀

**Urduliz** Berdintasunerako Bidea

# Urtarrilaren 20ra arte bidal daiteke berdintasunaren inguruko esaldia

**D**atorren martxoaren 8an, urtero bezala, Urdulizko Udalak, Inola elkarre feministagaz, Urdulizko Eskubaloit taldeagaz eta Andra Barriak emakumeen kontseiluagaz batera, Berdintasunerako Bidea marrazten jarraituko duen baldosa bat inauguratuko du herrian.

Horretarako, aurrean ere, urduliztarren artean esaldiak batzen ari dira, horien artean hurrengo baldosan joango den esaldia aukeratzeko. Hala, urtarrilaren 20ra arte bidali



ahal izango da esaldia, berdintasunerakobidean.urduliz@gmail.com helbidera edo 747 499 814 zenbakira. Herritar guztien artean eraikitako proiektu parte-hartzailea da, herrian betirako izango den aztarna utziko duena. Horregatik, Udalak herritar guztiak parte hartzera animatu ditu. Aukeratutako esaldia martxoaren 8an inauguratuko den baldosan agertuko da, antolatzaileek adierazi bezala, «guztionean Berdintasunerako Bidea marrazten jarraitzeko». ◀

**Gorliz** Gorliz Zabaltzen

# Tokiko Udalagaz konektatzeko aplikazioa garatu dute

**G**orlizko Udalak Gorliz Zabaltzen aplikazioa estreinatu du, Biscaytik fundazioak bultzatutako eta Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetzeko diseinatutako aplikazio mugikor berritzailea. Aplikazioa doakoa da eta Android eta iOS sistemetan eskuragarri dago, GooglePlay eta AppStore plataforman nagusietan. Helburua da bizilagunekiko lotura sendotzea, izan ere, Udalak kudeaketa hurbilagoa, arinagoa eta eraginkorragoa izatea bilatzen du. Hala, modu azkar eta eskuragarrian informatuta egoteko eta udalerriko egunerokoan aktiboki parte hartzeko aukera izango dute herritarrek.

Aplikazioak tokiko gaurkotasunaren berri ematen du: Gorlizen antolatutako azken albisteen, jardueren eta ekitaldien azken berriak, baita Udalak hartutako erabaki garrantzitsuen inguruko notiziak ere. Gainera, abisuak denbora errealean zabaltzen ditu: informazio garrantzitsua duten berehalako jakinarazpenak jasotzen ditu, hala nola hornidura-eteteak, udal-zerbitzuetako gorabeherak eta larrialdiak. Halaber, kalea zaintzeko funtzioa ere badu: erabiltzaileek eremu publikoko gorabeheren berri ematea ahalbidetzen duen zerbitzua da, hala nola argiztapen-arazoak, azpiegiturako kalteak edo garbiketarako arazoak. Modu horretan, zuzeneko kanal horrek optimizatu egingo du gorabeheren kudeaketa eta konponbidea herri osoan zehar. ◀



## Plentzia Birziklapena

### Urtarrilaren 20an birziklatzeko kanpaina abiatuko dute Plentzian

Urtarrilaren 20an, Plentziako etxe guztiak bisitatzen hasiko dira txartel bat entregatzeko. Horri esker, materia organikoa biltzen duten edukiontzi guztietan instalatu den sarraila elektronikoa berria ireki ahal izango dute herritarrek. Ekimen honen asmoa da 2030 Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Planak ezartzen dituen helburuak lortzea. Plentziako Udala Bizkaiko Foru Aldundiagaz lankidetzan ari da horretarako. Egun, Plentziako udalerrian sortzen den hondakinen % 20a bakarrik biltzen da berezita. Horrek esan gura du edukiontzietan utzitako 100 kiloetatik 80 kilo ez direla behar bezala botatzen edukiontzira (ontziak, paper-kartoaia, beira, organikoa eta berrerabilgarriak), eta gainerako frakzioko edukiontzietan uzten direla nahastuta. Egoera horren aurrean, herritarren erantzukizuna eta hondakinen bereizketaren aurrean duten portaera funtsezkoak dira. Hondakinek bilketa-kostua dute, baita tratamendu-kostua ere. 2024an, zehazki, 73,44 euro gastatu ziren hondakin organiko tona bakoitzeko eta 131,55 euro hondar-frakzioko hondakin-tona bakoitzeko. Bestalde, udalerrian sortzen duten materia organikoaren % 2 baino ez da biltzen. Beraz, bertara bideratu gura ditu bere indarrak Udalak. Gogoratu dute herritar guztiak erantzukizuna dela udalerrian sortzen diren hondakinen bilketa berezian parte hartzea, ezinbestean bete behar den ingurumen-eskakizuna betetzeko. Horregatik, egungo bilketa-tasak hobetzea espero dutela adierazi dute, betiere Plentziako etxe guztien laguntzagaz. ◀



### Mezu faxisten agerraldia Plentzian.

Urbe Kostako Gazte Koordinadora Sozialistak deitoratu duenez, pintaketa faxistak egin dituzte Plentzian duten mural baten gainean. Besteak beste, sinbologia faxistagaz eta «anti-antifa» esaldiak margotu dizkiete GKSren muralaren gainean. Kideek jakinarazi dute pintaketak tapatu dituztela, eta dei egin dute urtarrilaren 25ean «gerra eta faxismoaren aurka, gazte langileok lehen lerroa» lelopean egingo duten Bilboko manifestazioan parte hartzera.



**GetxoGas**

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

**GetxoGason Euskararekin bat!**




irati

MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71

iratialgorta@gmail.com

Torrene, 2 48991 – ALGORTA






**Plentzia** Arpillaoko eraikinaren etorkizuna

# Arpillaoko aparkalekua partzialki konponduko dute

**Lau urte baino gehiago itxita eman ostean, Udalak aparkalekua berriro irekiko duela berretsi du, eta 2023ko epaiak agintzen zituen konponketak egingo dituzte.**

**A**rpillaoko gainontzeko lokal guztiak bezala, aparkalekuak 2020tik darama itxita, baina, abenduan, Udalak azpiegituran konponketa partzialak egingo dituela iragarri zuen, obrak egitera behartzen dion epai judizial bati jarraituz. Kostua 600.000 eurokoa izango da, anbizio handiagoko egitasmoa alde batera utzita. Erabaki horregaz, aparkalekua laster berriro martxan jartzea espero dute.

2022an, aparkalekuko plazen emakidadunek epaitegietara jo zuen, «filtrazioek eragindako egituraren arazoak» argudiatuta, eraikinaren itxiera agindu zuen EAJren gobernu-taldearen isiltasun administratiboa salatzeko. 2023ko martxoan, epaitegiek arrazoia eman zien eta Udalari konponketei erantzuteko agindu zion.

Ondoren etorri zen gobernu-taldeak Arpillaoko aparkalekua berritzeko anbizio handiko proiektua egin ahal izateko helegitea jarri



2022an emakidadunek epaitegietara jo zuten konponbide baten bila. GOOGLE

**Gobernu-taldeak ebazpen judiziala betetzea erabaki du, lege-kostu handiagoak saihesteko eta zentroko plaza-falta arintzeko.**

zion epaiari. Horren arabera, 3 milioi euro inguru inbertitu gura zituzten lurpeko aparkalekua birgaitzeko eta eraikinaren eta lur gaineko inguruaren berrantolaketarako.

Udalak jarritako errekurtsua atzera bota dute eta lanak hasieran ezarritako konponketei mugatu behar izango dituzte. Hala ere, EH Bilduren ustez, epaiak «ez die behar bezala erantzuten, ez inguruaren ez eraikinaren beharrei», zaharkituta egon daitekeen txosten tekniko batean oinarritzen baita. ◀

**Plentzia** Isuskitzako bidearen auzia

# Isuskitza auzoko sarbideen jabetzaren inguruko eztabaida argitu dute

**A**zkenean, 40 urteko ziurgabetasunaren eta eztabaiden ondoren, Plentziako Udalak agindutako txosten tekniko espezializatu batek zehaztu du Isuskitzako Ardantzako sarbidea publikoa dela, eta Zabalazpikoa, berriz, pribatua. Aipatutako azterlanak 2020ko epaia betetzen du eta auzoko hirigintza-anomaliak zuzentzeko oinarriak ezartzen ditu.

Horregaz lotuta, 2023an kaleratutako auto judizial batek obrak premiaz egiteko agindua

**Konponketak errepidean 2024ko urrian hainbat konponketa egin zituzten itsasadarraren ondoan dagoen errepidearen tartean, publikoa den sarbidean, hain zuzen.**

eman zuen, 1.000 bizilagun ingururi eragiten dien sarbidearen segurtasuna bermatzeko; izan ere, narriadura-egoeran dagoen bideak 2016tik darama itxita, bizilagunek hori erabiltzen jarraitzen duten arren. Horrenbestez, Udalak iragarri du erlojuaren kontra ari dela lanean ezarritako epeak betetzeko, hasierako erantzukizuna aurreko legegintzaldiari zegokion arren. Lanek inbertsio esanguratsua eta azterketa tekniko konplexuak beharko dituztela ere aurreratu dute. ◀



**Plentzia/Gorliz** Danontzat gaztetxea

# Gaztetxea zabal-zabalik berriro, lau urteren ostean

**Abenduaren 27an, itsasoaren parean kokatzen den Plentzia/Gorlizko Danontzat gaztetxeak bere atak zabaldu zituen berriro ere, autogestioaren indarra erakutsiz.**

**L**au urte luzeren ostean, mugimendua eta bizitasuna bueltatu dira Plentzia/Gorlizko gaztetxearen barrura. Joan den abenduaren 27an izan zen irekiera handia eta, horregaz batera, eremu autogestionatuaren 12 urteak ospatu zituzten. Horretarako, aldeztatik auzolan ezberdinak antolatu zituzten eremua behar bezala atontzeko.

Danontzat gaztetxeko kideak diren Garazi Etxebarriak eta Alaitz Corralek nabarmendu dute hainbeste urteren ostean «aro berri batean» daudela. «Duela 4 urte, EAJ Alkatetzan zegoela, arrazoi politikoak erabiliz desalojatu gintuzten. Ez zen arrazoi teknikorik egon. Geroztik, eremu hau berreskuratzen ibili gara eta nahiko urte zailak izan dira», gogoratu du Corralek.

Hala ere, egungo egoera guztiz aldatu da. Gazte asanbladan nahiko lagun daudela azpimarratu dute, «motibazio handiarekin» dabilzanak berriro ere gaztetxeari buelta bat emateko.

Momentu honetan, euren indarrak jartzen ari dira lantaldeak eta ekintza berriak antolatzeko: «Barne lanketa bat egin dugu eta pentsatzen ari gara hemendik aurrera zer egin eta zer eskaini nahi diogun herriei».

Euren helburu nagusien artean daude kultura eskaintza bat osatzea eta agenda bat markatzea Gorlizeko eta Plentziako herriek dituzten beharrak asetzeko. «Betiere herritik egindako eta herriarentzako den eskaintza bat egin nahi dugu».

Hala, kideek jende guztia animatu gura dute Danontzat gaztetxera hurbiltzeko: aisialdirako antolatuko dituzten ekintzetara jende berria animatzea gura dute eta, horrez gainera, gazte asanbladara sartzeko gonbita ere egin dute.

«Hasiera berri bat da, gauza asko daude egiteko eta gogotsu gaude. Gustatuko litzai-



Danontzat gaztetxeak 12 urte bete berri ditu. HODEI TORRES



Auzolan ezberdinak antolatu dituzte irekiera handia baino lehenago. HODEI TORRES

**«Gustatuko litzauguke jendea animatzea eta erreferentzialtasun hori irabaztea berriro ere gure herrietan»**

DANONTZAT GAZTEKHA

guke jendea animatzea eta erreferentzialtasun hori irabaztea berriro ere gure herrietan», nabarmendu du Etxebarriak.

Halaber, azpimarratu dute pozik daudela berriro ere gaztetxea irekitzeaz hainbeste denboraren ostean. «Honek erakutsi digu borrorak eta bertan egoteak merezi duela. Beraz, aurrera!» ◀



UrIBE Kosta BizkaiBizi

# Bizikletak mailegatzeko zerbitzua gora UrIBE Kostan

**Eskualdean lau udalerritan dago, eta, 2027an, Plentzia, Gorliz, Sopela eta Urdulizera zabaltzea aurreikusita dago. Getxo da buru zerbitzuaren erabileran eremu osoan.**

**B**izkaibizi abian jarri zenetik, hiriko joan-etorriak errotik aldatu ditu inguruotan, garraio tradizionalaren alternatiba ekologiko eta eraginkorra eskainiz. UrIBE Kostan, Erandion, Leioan, Getxon eta Berangoan erabili daitezke bizikleta elektriko horiek, lau udalerriotan banatutako 33 estazioetan –metropoli-eremuko 9 udalerrietan 81 estazio ditu zerbitzuak-. 2027an sare hori hedatzea eta zerbitzua Gorliz, Plentzia, Sopela eta Urdulizera zabaltzea aurreikusita dago.

Mugikortasun iraunkorraren erreferente bilakatu da Getxo Bizkaian, BizkaiBizi bizikleta elektriko partekatuen sisteman duen parte-hartze aktiboari esker. Zerbitzu honek 120 bizikleta eta estrategikoki kokatutako 17 geltoki ditu, eta udalerrira sistema martxan da goen udalerrien artean buru da erabileran.

Abenduan inauguratu zuten eskualdeko azken estazioa, Getxoko Neguri auzoan koka-



Neguriko estazioa da eskualdean inauguratu duten azken estazioa. HODEI TORRES

«**Bizkaia jasangarriago eta konektatuago baterantz aurrera egiten jarraitzen dugu**»

SONIA PEREZ  
GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA  
TURISMO SAILBURUA

tutakoa. Udalerrira horretako 17.a da. Ardura-dunek azaldu dutenez, sisteman bizikleta-kopuru gehien duen bigarren udalerrira da Getxo (120 bizikleta); Leioa (50), Erandio (40) eta Berango (20) baino nabarmen gehiago ditu. Gainera, zerbitzuaren erabileran buru da Getxo, eta gehien erabiltzen diren bost estazioetatik hiru Getxon daude: Areetako Xake plaza, Bizkaia Zubiko plaza eta Algortako Telletxe plaza, hurrenez hurren. ◀

UrIBE Kosta 10. urteurrena

## Edestiaurrek egindako proiektu arkeologikoei errepassoa, Goñi Portalen

**U**ribe Kostako Historiaurreko zein etapa garaikideagoak ikertu ohi dituen Edestiaurre arkeologia-elkarteak 10 urte bete ditu. Hori ospatzeko, eta egindako lanak gizarteari erakusteko, argazki-erakusketa abiatu du Plentziako Goñi Portalen. Urtarrilaren 13an egin zuten inaugurazioa, eta bertan ikusgai egongo da, hilaren 24ra arte, 2015etik gaur egunera bitartean eskualdean zein inguruan egindako proiektuen laburpen txiki bat. Horrez gainera, da-

2015tik 2024ra bitartean egindako proiektu guztien berri emango dute argazki-erakusketaren bidez, urtarrilaren 24ra arte.

tozen hilabete eta urteetan egingo dituzten proiektuen berri ere emango dute.

Elkartekoek gogoratzen dutenez, 2015ean Atxurra kobazuloan egindako indusketa-lanetan eta horretan labar-pinturak aurkitu ostean sortu zuten taldea. Hala, hamarkada horretan egindako lanak ospatzeko antolatutako jarduera sortari hasiera eman diote. Hurrengo zita otsailaren 6an egingo dute, oraingoan Larrabetzun, LAR02 eta LAR03 proiektuetan egindako lanen berbalde batez. ◀







Txirri, Mirri eta Txiribiton Pailazoak

# «Ondo pasatzeko helburua aldarrikatu nahi dugu»

**Pailazoak betierekoak izan arren, 1972an sortu ziren Txirri, Mirri eta Txiribitonen atzean dauden pertsonak berritu egin dira. Gaur-gaurkoz, Peru eta Kattalin Ansorenak hartu dute Xabier Otaegi eta euren aita Jose Ignazio Ansorenaren lekukoak Txirriren eta Mirriren pertsonaien paperetan, hurrenez hurren; aldiz, Juanma Zaldua da Txiribiton, Txema Vitoriaren ordez.**

TESTUAK: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIA: HODEI TORRES ETA UTZITAKOAK ►

**Asko aldatu da pailazoen lana zuen aurrekoak hasi zirenetik? KATTALIN ANSORENA:** Nik uste dut orokorrean mantendu egin dela. Egia da gauzak asko aldatu direla, hainbat urte pasa baitira, baina esango nuke esentziak hor jarraitzen duela. Agian, moduak dira gehien aldatu direnak.

**PERU ANSORENA:** Egia da gure aitak-eta egiten zituzten emanaldiek, gutxienez, ordu eta erdi irauten zutela; aldiz, gu 55 minutu edo ordubete inguru aritzen gara. Saiatzen gara apur bat dinamikoagoak edo azkarragoak izaten. Hala ere, egitura oso antzekoa da; ez da gehiegi aldatu.

**Zuek Txirri, Mirri eta Txiribitonen bigarren belaunaldia zarete, nolakoa izan zen trantsizioa? JUANMA ZALDUA:** Ni haien soinu-teknikaria izan nintzen urte askoan, baina, azkenean, pailazo bukatu nuen Txiribitonen paperean, nahiz eta jende askok pentsatu ni ere Txema Vitoriaren semea naizela, karkar. Egia esateko, bihotzetik egiten hasi ginen zerbait izan zen, aspalditik haien laguna ere naizelako, eta modu nahiko naturalean ateratu zen dena. 2003an, junior moduan hasi ginen, baina, 2010etik aurrera, aldaketa hori eman eta, haiek behin betiko 2013ko urtarilean utzi zutenean, guk hartu genuen euren lekukoa.



## Pailazo

Hirukote ezagunak 50 urte bete zituen 2022an, eta, orduetik, Pailazo ikuskizuna eskaini dute Euskal Herriko geografia guztitik. Taldearen esentziagaz, xelebrekeriakaz eta abesti mitikoak Erandion eta Berangon izan dira urtarrilaren hasieran, eta hilaren 26an Muxikebarrin izango dira, 18:00etan.

**K. A.:** Egia da haiek hasieran pentsatu zutela beste pertsona batzuekin jarraitzea, baina ez zuen uste bezain ondo funtzionatu, beste lan batzuk ere zituztelako, besteak beste. Orduan, guri egin ziguten proposamena, bestelako konpromiso mota bat genuelakoan. Hasieran, guk antzokietan egiten genituen emanaldiak, haiek telebistan zeuden bitartean, herrietara joaten jarraitu nahi baitzuten. Telebistan ere hasi ginen azaltzen, eta 40. urteurreneko bira ere parte hartu genuen; beraz, esan dezaket, pixkanaka-pixkanaka, gure taldea sortzen joan ginela, eta, nahiz eta Txirri, Mirri eta Txiribiton izan, eta aurrekoen oso antzekoak izan, guk ere gure bidea egin dugu.

**P. A.:** Ni beranduago sartu nintzen taldean, Madrilen bainengoen ikasten. Orduan, Kattalin Mirrirena egiten zuen eta galdetu zidan ea prest nengoen Musde Kakamokordo pertsonaia egiteko. Horrela hasi nintzen, gero Patxistein Doktoarena ere egin nuen, eta, azkenean, bai, Txirriren papera hartu nuen. Prozesua polita izan zen, txikitatik genuelako lotura hori.

**Pailazoen pertsonaien kontua ez da ausazkoa, zeresan handia dauka ikuskizunean, ezta? P. A.:** Bai, hori da, Txirri serioagoa da, Mirri zirikatzailea da eta Txiribitonek bihotz ona dauka, nahiz eta Mirriekin batzean ziria



sartzea ere gustatzen zaion. Hala ere, nahiko egitura klasikoa duten pertsonaiak dira: ni *Carablanca* izango nintzateke, Mirri *Augusto* eta Txiribiton *Contraagosto*. Saiatu gara gure aurrekoen antzekotasuna jarraitzen, baina gure modura, bakoitzaren ukitua ematen.

**Pailazo bihurtu aurretik, umeak zinetenean edo haiekaz lanean zeundetenean, pentsatu zenuten noizbait horretan bukatuko zenutenik?** P. A.: Niri txikitatik gustatu izan zaizkit pailazoak, baina ez zen nire asmoa. Hala ere, gurasoek beti kontaktzen dute txikitari motxila zuri batekin, ileordearekin, Mirriren sudurrarekin, Txiribiton bozinarekin eta mikrofonoarekin joaten nintzela; hiru pertsonaiak nituen, kar-kar.

K. A.: Egia da ez genuela honetan bukatzea espero, ez zen gure helburua, ez zuelako ematen noizbait bukatu egingo zenik ere. Momentua heldu zenean, galdetu ziguten ea guk jarraitu nahi genuen, eta baiezkoa eman genuen, oso gustura gainera. Gerora, ikastaroak ere egin genituen eta ikusi genuen clownaren lana zein zoragarria den.

**Orain, Pailazo ikuskizunaren bira egiten ari zarete; zertan datza?** K. A.: Izenak dioen bezala, pailazoen figurari eskainitako ikuskizuna da. Txirri, Mirri eta Txiribitonek 50 urte bete zituzten 2022an, eta, nolabait esateko, denok «ñoñotuta» gauden eta baldarkeriekin inor ez mintzeko kontuz ibili behar garen garai hauetan, pailazoen barre eginarazteko eta ondo pasatzeko helburua aldarrikatu nahi dugu. Noski, ez dugu inor mindu nahi, baina, askotan, egiten dena baino, nola hartzen ditugun gauzak da arazoa; beraz, guk aldarrikatu nahi dugu garrantzitsuena barre egitea dela.

Esaten dute pailazoak zirkuko animalien kaka batzen joaten ziren pertsona horietatik jaio zirela; normalean, herriko pertsona xelebreenak aukeratzen zituzten lan horretarako, eta kaka gainera erortzean eta tontakeriak egitean publikoak barre egiten zien. Guk ikuskizunean esentzia hori azaldu nahi dugu, pailazokeriekin barre eginaraziz. Pailazoak umeak bezalakoak dira: filtrorik gabe pentsatzen edo sentitzen dutena esaten dute. Niri askotan esan izan didate pailazo bezala egia esan behar dudala beti, pailazoarena egiten ari zarenean ezin duzula gezurrik esan, egoera bat modu berezi batean bizitzen ari zarelako, besterik ez.

Pailazoen ezaugarri garrantzitsu bat da antzerkian publikoarekin dagoen laugarren pareta hori desagertu egiten dela. Guk publikoarekin hitz egiten dugu eta harremana



Pailazo belaunaldi biak, nagusiak eta juniorrak, elkarregaz. TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON

## Trantsizioa

«Pixkanaka-pixkanaka, gure taldea sortzen joan ginen, eta, nahiz eta Txirri, Mirri eta Txiribiton izan, eta aurrekoen oso antzekoak izan, guk ere gure bidea egin dugu»

«Egia da ez genuela honetan bukatzea espero, ez zen gure helburua, ez zuelako ematen noizbait bukatu egingo zenik ere. Momentua heldu zenean, galdetu ziguten ea guk jarraitu nahi genuen, eta baiezkoa eman genuen, oso gustura gainera»

daukagu, horregatik, saio bakoitza ere desberdina da: batzuetan, txorakeria bat sortzen delako eta guk horri ere jarraitzen diogulako; momentua ere aprobeztatzen jakin behar da, hori ere badelako pailazoen esentzia.

J. Z.: Inprobisazioa ere gure lanaren parte da. Azken finean, guk gure astakeriekin, ziriek eta bromekin publikoa harritzea bilatzen dugu; publikoarekin konektatzea da gure helburua.

**Izan duzue noizbait arazoren bat zuen ikuskizunetako bromaren batengatik?** J. Z.: Bai, behin, Txiribitonekin sartzen zirelako potolo zegoelako eta bullying egiten ziotelako. Ondoko pailazoari aulkia kentzearena ere ez dugu egiten, adin bat dugulako eta umeek hori etxean ere egin dezaketelako. Ni teknikari bezala ari nintzenean ere petardoak eta horrelakoak erabiltzea ere debekatu ziguten. Gainera, beti sartu izan ditugu pertsonaia gaiztoak eta horrelakoak, baina, gaur egun, Interneten gauzak askoz okerragoak ikusi ditzakete, beraz, filtroa non dagoen jakitea ez da erraza izaten askotan.

K. A.: Hala ere, umeak oso azkarrak dira, eta ederki bereizten dute ikusten ari direna antzerkia dela eta gaiztoa pertsonaia bat dela. Batzuetan, helduok gure aurreiritziengatik gehiago eskandalizatzen gara umeak baino.





Juanma Zaldua eta Kattalin eta Peru Ansonera, *Pailazo* ikuskizunaren saio batean. TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON

P. A.: Hala ere, ez ditugu horrelako arazoak izaten, salbuespen bat izan zen; behintzat, ni nagoenetik ez zaigu horrelakorik gertatu.

**Zuen ikuskizunetako ardatza musika izan da beti, hainbat belaunaldiren memoriaren parte diren hamaika abesti zor dizkizuegu. Horrela jarraitzen du izaten?** J. Z.: Bai, gure aurrekoek izugarritzko ondarea utzi digute, hainbat eta hainbat abesti daude, baina gehienak ez ditugu erabiltzen, 30 bat disko eta 150 abesti baino gehiago egin baitzituzten.

P. A.: Ikuskizunetan saiatzen gara betikoak diren abesti ezagunak erabiltzen, adibidez, *Altxa Felipe*, *Zapi zuria*, *Paristik natorren*, *Pintto-Pintto* eta horrelakoak, baina oso famatuak egin ez direnak ere sartzen saiatzen gara. Ematen du abesti batzuk betirako izango direla.

**Ikuskizunetan erabiltzen duzun euskara ere ez da nolana hikoia.** K. A.: Bai, hitanoa erabiltzen dugu gure artean. Galtzen ari den hizkera denez, hori ere aldarrikatzeko eta erakusteko modu bat da, bestela, haur gehienek ez dute inoiz hori entzungo.

P. A.: Gainera, lagunen arteko hizkera denez, gertutasuna ere ematen digu, Txirri, Mirri eta Txirribiton lagun-talde bat delako. Herentzia-

«Esaten dute pailazoak zirkuko animalien kaka batzen joaten ziren pertsona horietatik jaio zirela; normalean, herriko pertsona xebleenak aukeratzen zituzten lan horretarako, eta kaka gainera erortzean eta tontakeriak egitean publikoak barre egiten zien. Guk ikuskizunean esentzia hori azaldu nahi dugu, pailazokeriekin barre eginaraziz»

gatik ere egiten dugu, aitik-eta horrela egiten zutelako.

**Zer daukazue pentsatuta etorkizunera begira?** K. A.: Momentuz, *Pailazo* ikuskizunarekin jarraituko dugu, baina badaukagu pentsatuta zerbait berria egitea, baina lasai gabiltza.

P. A.: Hau ez da gure ogibidea, eta emanaldi bat sortzeak badu bere lana; gainera, ez zaigunez gustatzen estresatuta ibiltzea, urte honetan behintzat emanaldi horrekin jarraituko dugu. Oraingoz, bi ikuskizun mota besterik ez ditugu egiten: kalerako *Pailazokeriak* izenekoa, kaleko formatura egokituta dagoen ikuskizun dinamikoagoa eta antzokietan egiten duguna.

**Pailazo modura badaukazue bestelako ametsen bat?** P. A.: Kattalinekin askotan komentatu dut helduentzako ikuskizuna ere egitea gustatuko litzaidakeela, gurasoek ere egin izan zutelako horrelako emanaldiren bat.

K. A.: Oso polita izango litzateke, bai, baina pailazoa baino, hori bufoiarena izatea izango litzateke. 18 urtetik gorakoentzako zerbait izan beharko litzateke.

J. Z.: Hala ere, zaila izango litzateke, gauerdian egin arren, seguru umeren bat edo beste ere egongo delako, kar-kar. ◀



# Urtarril-otsaila

## Barrika

Urtarrilak 24, barikua

**KZ guneko ikastaroa**

09:00 | Liburutegian

BAK Q ateratzen ikasteko tailerra.

Urtarrilak 29, eguaztena

**Ipuinaren ordua: Euria egin ondoren**

18:00 | Liburutegian

Izen-ematea telefonoz edo emailaz: 946 775 163 eta liburutegia@barrika.eus.

Urtarrilak 31, barikua

**Ludoteka: Txiki-txef**

18:00 | Ander Deuna aretoan

Izen-emateak liburutegian.

## Berango

Urtarrilak 25, zapatua

**Kontzertua: Iñaki Basabe**

10:00 | Berango Antzokian

Urtarrilak 26, domeka

**Zirkua: Zirkoteke berezia**

18:00 | Berango Antzokia

Urtarrilak 31, barikua

**Kirolaren gala**

19:00 | Berango Antzokian

Herriko kirol elkarteei omenaldia egingo diete.

## Erandio

Urtarrilak 18, zapatua

**Antzerkia: Ipurbeltz**

18:00 | Josu Murueta kultur etxean

Kolore eta ideia ezberdinen arteko elkar-ulertzea.

Urtarrilak 24, barikua

**Hitzaldia: Nola egin emozioen kudeaketa ona?**

18:00 | Josu Murueta kultur etxean

Astrabuduko emakumeen elkarteak antolatuta.

Otsailak 1, zapatua

**Zutik jaialdia**

19:00 | Merkatu Zaharrean

Lady Grumpy, El Vuelo del Pikaro eta Bele taldeen kontzertuak, besteak askoren artean.

## Getxo

Urtarrilak 23, eguena

**Kontzertua: Naïke Ponce**

20:30 | Muxikebarrin

Kantari eta dantzari cadiztarraren *Vivir*.

Urtarrilak 25, zapatua

**Kontzertua: Duo Nacedo**

19:30 | Andres Isasi musika eskolan

Neguko Bidaia zirkloko emanaldia.

Urtarrilak 25, zapatua

**Antzerkia: Heisenberg**

20:00 | Muxikebarrin

Gizakion arteko konexioa zein ziurgabea eta komikoa izan daitekeen erakusten duen obra.

Urtarrilak 26, domeka

**Txirri, Mirri eta Txiribiton**

18:00 | Muxikebarrin

Taldearen betiko arrakastak eskainiko dituzte.

## Gorliz

Urtarrilak 17, barikua

**Elkartasun jaialdia!**

19:00 | Danontzat gaztetxean

Urribi Kostako Ernaik jaialdia antolatuko du.

Kontzertuak: Arene 6, Naxker eta DJ K-lanber.

Urtarrilak 18, zapatua

**Nordic Walking**

10:15 | Sertutxenaatik hasita

Izen-emateak turismo bulegoan.

Urtarrilak 26, domeka

**Ibilbide zirkularrak**

09:00 | Ibarreta plazatik hasita

Izen-emateak turismo bulegoan.

## Leioa

Urtarrilak 19, domeka

**Kirola eta familia**

20:30 | La Estrella plazan

Familian kirola egiteko jardunaldia, 3 urtetatik aurrera.

Urtarrilak 24, barikua

**Antzerkia: Almazanean**

20:30 | Kultur Leioan

Iker Galartzaren eta Zuhaitz Gurrutxagaren obra.

Urtarrilak 26, domeka

**Antzerkia: Botila barneko aztia eta beste hainbat istorio**

18:00 | Kultur Leioan

Agerian geratuko dira ezkutuan egon diren hainbat istorio.

## Lemoiz

Urtarrilak 26, domeka

**Umeentzako zinema**

18:00 | Andrakako kultur gelan

Urtarrilak 31, barikua

**Sarakoetxeko jaia**

18:30 | Armintzako kultur etxean

Dokumentalaren aurkezpena, besteak beste.

## Plentzia

Urtarrilaren 13tik 24ra

**Argazki-erakusketa: Arkeologia**

Goñi Portalen

Edestiaurre arkeologia-elkartaren 10. urteurrena.

Urtarrilaren 27tik otsailaren 9ra

**Erakusketa: Pintura piktoriko surrealista**

Goñi Portalen

Oleoz egindako artelaren erakusketa.

Urtarrilak 28 eta 29 eta otsailak 3 eta 4

**Formakuntza: Mugikorren auzia**

17:45 | Goñi Portalen

Telmo Lazkano Hezkuntza eta osasun gaietan adituaren formakuntza.

## Sopela

Urtarrilak 31, barikua

**Antzerkia: Lohi gorria**

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Gay izateagatik, kontzentrazio-eremu batean eta gero kartzelan sartu zuten gizon baten istorioa.

Otsailak 2, domeka

**Antzerkia: Scrooge eta mamuak**

18:00 | Kurtzio kultur etxean

Diruagaz obsesionatuta dagoen bankari berekoi eta zekenaren istorioa.

Otsailak 7, barikua

**Antzerkia: Miñan**

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Ibrahimaren bizitzaren kronika.

## Urduliz

Urtarrilaren 13tik 24ra

**Erakusketa: Reflexión**

19:00 | Urdulizko kultur etxean

Benkhay artista marokoarraren lanen aukeraketa.

Urtarrilak 24, barikua

**Liburuaren aurkezpena:**

**Butroeko uso**

19:00 | Urdulizko kultur etxean

Oihane Amantegik eta Unai Gonzelezek euren liburua aurkeztuko dute.



## Lehen/Orain 1992-2025



Belaunaldiz belaunaldi Uribe Kostako tokiko euskarazko aldizkariaren izenak eta formatuak aldatu badira ere, mamiak lehen egunean bezala dirau. Ezkerretik eskuinera: **Santa Mariñe**, **Bizarra Lepoan**, **UK** eta **HIRUKA**.

## Uribitakora



**ALBE**

**Algortako Bertsolari Eskola**

**TESTUA**  
Josu Landeta  
Egurrola

**DOINUA**  
Geroko plaza  
batean

**ARGAZKIA**  
Hodei Torres

## Suhiltzaileak

Errepide edo baso urrunetan,  
erreka edo plazetan,  
sute latz edo uholdeetan,  
baita lagun bilaketan,  
hortxe ditugu buru belarri  
larridura uneetan.  
Nahiz eta inoiz miretsi haiek  
heroi gisara umetan,  
euren langintzak arriskua du  
eta ez dabilta olgetan.

Ohartu barik alda daiteke  
ardo eta arrosen bizitza,  
ortzadarraren poza zuenak  
orain unea du gaitza.  
Horra plazako pisu batean  
egoera latz bortitza:  
«auzokoren bat ezin atera?»  
Dudan begira gabiltza.  
Soilik dakigu haiek dutela  
norbait askatzeko giltza.

Kamioi batetik plataformara,  
gero leihotik barrura,  
kanpotik ezin dugu sumatu  
etxeke inoren piura.  
Behargin batzuk prestu dabilta,  
artatzea dute ardura;  
Pello eta Josu, Garazi eta Oihan,  
nor doa arrisku lekura?  
Berdin da zein den, berdin da  
zelan, azkenez laguntza heldu da.



Mirene Beriain Altxa Burua

# «Ez diogu beldurrik izan

**Teknologia erabiltzeak umeengan duen eraginaz kezkatuta, horiei Interneterako sarbidea duten *smartphone*-ak ematea atzeratu eta eskolak horiek gabeko arnaguneak bihurtu gura dituzten gurasoek osatzen dute Altxa Burua.**

ANDER ZARRAGA

**Zein da Altxa Burua ekimenaren jatorria?** Mugimendua familien kezka batetik abiatu zen: umeek mugikorrek modu goiztiarrean eskuratzen zituztenean sortzen ziren arazoak. Ideia horren inguruan, familiak elkartu eta erabaki zuten ez zietela beraien umei mugikorrik emango; ikusi zuten mugikorra oso goiz ematen zitzairenean horrek arazo asko sortzen zituela. Beraz, hori atzeratzeko, familien arteko adostasun batera iristeko beharretik sortu zen ekimena.

**Zeintzuk dira bultzatzen dituzuen dinamikak?** Gurea inurri-lana da. Beste kide batek eta nik Bizkaiko e-maila daramagu eta, orain, kezka gehiago dagoela, eskola bateko guraso talde batetik edo udal batetik idazten digutenean, guk denbora gehiago daramaten taldeek egindako urratsetara bideratzen ditugu: kontzientziatzeko formakuntzak eskaintzen, lanerako taldeak sortzen... Hala ere, bakoitzak bere inguruan funtzionatzen duena bilatu behar du, zentro bakoitza desberdina delako. Ni Ander Deuna Ikastolako ama naiz, eta hainbat formatutako prestakuntzak, informazio-kanpainak eta horrelakoak egin ditugu, baina jendeak ez du beti nahiko genukeen mailan erantzuten.

**Momentuz, mugimendua Gipuzkoan egituratu da batez ere; hemen ere ari da gauzatzeko?** Bai, hori da. Gipuzkoako familiak izan ziren talde bezala antolatzen lehenak. Tolosako Laskorain Ikastolako gurasoek beraien burua Altxa Burua bezala izendatu zuten, eta modu naturalean sortzen joan diren beste taldeek ere izen hori hartu dute. Bizkaian ere hainbat talde ari dira sortzen; Uribe Kosta eskualdean, beste askoren artean, Ander Deuna Ikastola, San Nikolas Ikastola, Betiko Ikastola, Andra Mari, Zubileta, Txomin Aresti, Berango Merana eta Altxaga ikastetxeetan sortu dira taldeak.

**«Zenbat eta *smartphone*-a lehenago eskuratu, orduan eta kalte gehiago eragingo dio beraien ongizate psikologikoari. Horrez gain, osasun arazo fisikoekin ere erlaxionatuta dago: obesitatearekin, lo-eta bista-arazoekin... Umeen garapenean ere eragina dauka; adibidez, ikusi da mintzamenen atzerapenak izaten dituztela edo beraien emozioak kudeatzeko zailtasun gehiago izaten dituztela»**

MIRENE BERIAIN  
PEDIATRA ETA ALTXA BURUA  
EKIMENEN KIDEA



Mirene Beriain pediatra

**Zein izan da orain arte ikastetxeen erantzuna?** Beraiek ere ikusi dute arazoak izaten dituztela mugikorraren inguruan, beraz, nik uste dut gehienak erabilera debekatzen duen araudiaren aldekoak direla. Beste kontu bat da hezkuntzako digitalizazioarena: hasieran tresna oso indartsuak bezala hartu bazituzten ere, orain neurri gehiago ari dira hartzen, baina horretan ere denetarik dago. Ikastetxe bakoitzak bere lerroa dauka, eta, kezkatzen gaituen zerbait izan arren, oraindik ez gara horretan sartu.

**Hala ere, ikastetxe gehientsuetan mugikorraren erabilera debekatu dute. Lorpen bat dela deritzozue?** Bai. Orain arte eskola bakoitzak bere arautegi propioa zuen; batzuk zehaztapen gehiagorekin, beste batzuk gutxiagorekin. 2024ko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzak agindu zuen ikastetxe bakoitzak arautegia eraiki beharko zuela, beraz, orain, betebeharrak dago horren inguruan. Hala ere, guk eskatu genuen Jaurlaritzak araudi orokor bat egin zezala, ez zentro bakoitzak berea, minimo batzuk bermatzeko. Hau osasun publikoko arazo bat denez, pentsatzen dugu Hezkuntza Sailak bermatu beharko lukeela ikasle baldintza berdinean egon daitezela.



# «behar mugak jartzeari»



izateaz gain, Bizkaiko Altxa Burua ekimeneko kidea eta Sopolako Ander Deuna Ikastolako gurasoa da.

**Osasun publikoko arazo bat dela diozu. Zeintzuk dira gazteengan mugikorraren erabilera dituen kalte-eragin nabarmenenak?** Osasunaren aldetik ikerketa asko daude argi eta garbi agerian uzten dutenak mugikorraren erabilera osasun mentaleko arazoekin erlacionatuta dagoela: zenbat eta *smartphone*-a lehenago eskuratu, orduan eta kalte gehiago eragingo dio beraien ongizate psikologikoan. Horrez gain, osasun arazo fisikoekin ere erlacionatuta dago: obesitatearekin, lo- eta bista-arazoekin... Umeen garapenean ere eragina dauka; adibidez, ikusi da mintzamenen atzerapenak izaten dituztela edo beraien emozioak kudeatzeko zailtasun gehiago izaten dituztela. Nik kontsultan hori ikusten dut, eta pantailen gehiegizko erabileraren ondorio horiek dituzten nerabe asko daude osasun mentaleko arloan: antsietatea, tristura...

**Esango zenuke inflexio puntu batera heldu garela?** Orain arte, ezjakintasunetik hartu dira umeei *smartphone*-ak edo tabletak emateko erabakiak; izan ere, egoera jakin batzuetan oso erosoak dira. Hala ere, horren guttiaren atzean dagoena oso konplexua da eta helduok egiten dugun mugikorraren erabilera ere eragin handia dauka, azken finean,

«Umearekin komunikatzeko *smartphone* bat ez da beharrezkoa, bestelako gailuak ere badaude, eta horiekin beraien artean ere komunikatu daitezke. *Smartphone*-ek Interneteko sarbide mugagabe hori daukate eta gauza erakargarri eta adiktibo asko kontsumitzeko aukera ematen dute»

umeek guk egiten dugun guztia kopiatzen dutelako.

**Aipatuko zenuke mugikorra bereganatzea atzeratzeko gakoren bat?** Hasteko, mugikorra ahalik eta gehien atzeratzea izango litzateke idealena, ahal bada, 16 urtera arte. Oraindik hortik oso urrun gaude, eta egia da ume bakoitzaren errealitatera ere egokitu beharra dagoela. Bestetik, azpimarratuko nuke umearekin komunikatzeko *smartphone* bat ez dela beharrezkoa, bestelako gailuak ere badaude, eta horiekin beraien artean ere komunikatu daitezke. *Smartphone*-ek Interneteko sarbide mugagabe hori daukate eta gauza erakargarri eta adiktibo asko kontsumitzeko aukera ematen dute. Horrekin batera, hori eskuratzen dutenean, ez da gomendagarria opari bezala ematea, hainbeste muga eta arau dituen opari bat ez delako onartzen erraza; bere muga eta arauak dituen helduen tresna bat bezala hartu beharko litzateke. Muga horiek, batez ere, denbora eta edukien aldetik izan beharko lirakeke. Halaber, oso garrantzitsua da erabilera helduekin batera egitea, oso gauza bortitzak aurkitu ditzaketelako eta helduok hori kontrolatzen eta interpretatzen lagundu behar diegulako. Kotxeko giltzak ematen ez dizkiozun bezala, mugikorrarekin ere kontu handia izan behar da. Azkenik, ez diogu heldurrik izan behar mugak jartzeari, ume edo nerabeak ez baitira kontziente adikziorako dagoen arrisku horretaz.

**Zeintzuk dira etorkizunera begira dituzuen helburuak?** Momentuz, familien artean *smartphone*-a ematearen beharraz kontzientziatzen jarraitu nahi dugu. Gipuzkoan ari dira emaitza eta adostasun gehiago lortzen; aldiz, Bizkaian talde asko sortu berri dira oraindik. Guretzat gertuko lan hori oso garrantzitsua da, gauza batzuk goitik etorri behar direlako, baina kontzientzia ere sortu behar dugu eta gurasook argi izan behar dugu honen inguruan nola jokatu. Horrez gain, Hezkuntza Sailari kontzientziazio kanpaina bat martxan jartzeko eskatu genion, baina oraindik ez dugu zehaztasunik. Hezkuntzaren digitalizazioari dagokionez ere hor zabaltzeko dagoen meloi handi bat dago, baina borroka guztiei aldi berean ezin diegu heldu, bestela ez gara inora helduko.



# San Nikolas Ikastola, erdigunean zu

**Berritzailea, gertukoa, inklusiboa, euskalduna eta kooperatiboa da San Nikolas Ikastola. Beste kulturekiko zabaltasunaz euskal kultura sustatzen du.**

Urte batetik hasita eta 16 urtera arte hizkuntza murgiltze ereduaren kalitatezko hezkuntza eskaintzen du San Nikolas Ikastolak. Etengabe eguneratutako hezkuntza-sistema pedagogikoaz gain, San Nikolas Ikastolak eskolaz kanpoko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: haurtzaindegia, jantokia edota Uribe Kosta osora heltzen den garraio-azpiegitura, besteak beste.

Guraso-talde baten ekimenez sortutako hezkuntza proiektu honetan, langileak, gurasoak zein ikasleak eguneroko kudeaketan ezinbestekoak dira. Beti ere, euskararekiko konpromiso irmoagaz, hizkuntzaren egonkortasuna eta presentzia indartzea baita San



San Nikolas Ikastola Algorta auzoan dago kokatuta, Getxoko bihotzean.

**Gertutasunak bereizten du San Nikolas Ikastola.**

Nikolas Ikastolaren helburuetako bat. Bestalde, irakasleen etengabeko formakuntzak San Nikolas Ikastolak hezkuntzaren kalitatearekiko eta garapenarekiko duen konpromisoa islatzen du.

# Euskal Curriculuma oinarri

**Leioako Betiko Ikastola guraso kooperatiba eta Euskal Curriculuma oinarri duen Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kidea da. Euskara dute ardatz nagusi.**

Euskararen erreferente izateko, euskaraz bizi eta euskal kulturaren igorle eta bultzatzaile izateko konpromisoa du Betikok. Familiakaz elkarlanean, pertsonaren garapenean zentratutako heziketa eskaintzen du eremu guztietan: emozionala, soziala eta kognitiboa, besteak beste. Hau da, izaten ikasteko hezkuntza proposamen bat du. Aniztasunari modu inklusiboan erantzuna ematea da beste erronka handietako bat, eta, Euskal Curriculumean oinarrituz, konpetentziak eta baloreak garatzeko berezko ikasmateriala du: HHn KUKU, LH 1-2-3n KIMU eta LH 4tik DBH 4ra EKI proiektuak lantzen dira, haien arteko koherentzia 0-16 tarte osoan bermatuz. Kanpoko eremu berdeak ere baditu, eta txikienakaz «Basoa»



Pertsonaren garapenean zentratutako heziketa lantzen du Betikok.

**Euskaraz sentitu, pentsatu eta ekin Betiko Ikastolan.**

proiektua du martxan. Jantokia ere eremu hezitzailea da; jan-ohitura osasungarriak lantzen baitira bertan. Gainera, bertoko eta sasoiko produktuakaz egindako menuak izaten ditu.



**ANDER DEUNA IKASTOLA** Gatzarriñe kalea, 47. 48600 SOPELA • 946 760 266 • info@anderdeuna.eus • www.anderdeunaikastola.eus

# Biharko mundua gaur eta hemen

**Uribe Kostako komunitate euskaltzaleak osatzen du Ander Deuna Ikastola. Aurtengo matrikulazio epea otsailaren 3tik 14ra bitartean izango da.**

**A**nder Deuna Ikastolaren hezkuntza-proiektuaren ardatzak honako zutabe hauetan oinarritzen dira: konfiantzazko hezkuntza eta pedagogia aurrerakoa, ikastolan esku esku parte hartzeko komunitatea, euskara eta euskal kultura erdigunean jartzeko helburua, eskualdearekin eta naturarekin lotura eta Euskal Herriko Ikastolen sarearen parte izatea.

Ander Deunan Ikastolak Haur Hezkuntzatik Batxilergora doan hezkuntza-eskaintza integrala dute, euskaraz, mundura begira eta etengabeko orientazio-prozesu batekin.

Horrez gain, Ikastolaren proiektu pedagogikoan erabat integratuta dauden eta hezkuntza-proiektuaren osagarri diren hainbat zerbitzu



Ander Deunan, ikaslea ulertzeko moduan oinarritutako eredu pedagogikoa lantzen dute.

**Ate irekiak egingo dituzte urtarrilaren 20an.**

eskaintzen dituzte, hala nola ekoizle eta hornitzaileekin zuzeneko harremana duen sukalde eta jantokia, autobus-zerbitzua, Haur eta Lehen Hezkuntzako familientzako zaintza-zerbitzua eta askotariko eskolaz kanpoko ekintzak.

## GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA EUSKALTEGI MUNICIPAL DE GETXO

**5 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK**  
CURSOS INTENSIVOS DE 5 HORAS

**MAILA GUZTIAK**  
Todos los niveles  
**A1-A2-B1-B2-C1**

**IKASTAROA:** Otsailaren 13tik ekainaren 30era arte (415 ordu)  
CURSO: Del 13 de febrero al 30 de junio (415 horas)

**MATRIKULA ZABALIK** otsailaren 7ra arte  
MATRÍCULA ABIERTA hasta el 7 de febrero



**GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA**  
**(RKE eraikina)**

Santa Eugenia plaza, 1 (Romo) Getxo  
944 646 299 - euskaltegi@getxo.eus

 [www.getxo.eus/eu/euskaltegi](http://www.getxo.eus/eu/euskaltegi)  
[www.udaleuskaltegiak.eus/eu](http://www.udaleuskaltegiak.eus/eu)



# Eskola hurbila eta integratzailea

**Leioako Artatza auzoan dagoen D ereduko ikastetxe publiko txikia da hau. Ikasleen, irakasleen, langileen eta gurasoen arteko harremanak oso hurbilak dira bertan.**

**E**uskaragaz eta euskal kulturagaz konprometitutako lerro bakarreko ikastetxe familiarra da hau. Leioan dagoen D ereduko eskola publikoa da eta, bere kokapenagatik, udalerriko ikasleek autobus-zerbitzua dohainik izateko aukera dute.

Eskola txikia izan arren, dituen guneek handi egiten dute; eremu naturalez inguratuta, ha maika aukera ditu eskolak bertan dauden ikasleek horietaz goza dezaten.

Ikastetxearen helburua da ikasleek gaitasun eta trebetasun emozionalak eta kognitiboak garatzen laguntzen dien prestakuntza eskaintzea. Horretarako, bere Hezkuntza Proiektua baloreetan eta eskola inklusiboaren printzipioan oinarritzen da. Eskola txikia izanda lan-



Ikastetxea kutsadura akustikorik gabeko gune natural batean txertatuta dago.

**Baloretan eta elkarrizketan oinarritzen dira.**

taldearen harremana hurbila eta eraginkorra da, inplikazio maila adierazgarria eta ikasleen beharrei egokitutako atentzioa eskaintzen duena aniztasunari erantzun egokia emanez.

# Zure auzotik, mundura

**Hezkuntza euskaldun, eleanitz, inklusibo, hurbil, diziplinarteko eta berritzailea ardatz duen Institutua da Artaza-Romo, Pinueta eta Romo auzoetatik gertu dagoena.**

**E**uskara du erdigunean. D eredu da nagusi. Normalizazio-talde sendoa du, eta, gainera, hizkuntza errefortzurako aukera du. Eredu eleanitza dago. *English Language Assistant* figura ere badu zentroak eta, horri esker, laugarren hizkuntza ere aukeratu daiteke. Institutua inklusiboa da, aniztasunaren trataera zutabe baitu: dibertsifikazioa, gela egonkorra eta Bidelagun Programa dira bertan. Halaber, bi orientatzaile ditu, baita psikologoa ere. Lehen Ziklorako patio aktiboak dituzte, jolastordu arruntean zein jantokiaren osteko jolasgarria dinamizatzen aproposak. Komunitateari garrantzia ematen dio, eta, gainera, Gobelako metro-geltokitik hur dago. Askotariko azpiegitura ditu ere, Erromo Txiki eta Erromo Handi erai-



Besteak beste, Batxilergo Artistikoa ere eskaintzen dute bertan.

**Eskolaz kanpoko askotariko eskaintza ugaria du.**

kinak, musika gela... Berrikuntza pedagogikoa du giltzarri: kompetentzietan hezten dituzte ikasleak. Eta Lehen Zikloan eremukako metodologia darabilte, curriculum berria inplementatuz.



Bea Sever Sexologoa

# «Koitoaren inguruan dena mugitzen dela pentsatzeak kalte asko sortzen ditu»

**Sexu-hezkuntza «jaiotzen garenetik» jasotzen dugula nabarmendu du Bea Sever sexologoak. Beragaz plazeraz eta autoestimua hausnartu dugu.**

NAHIA MARTINEZ GONDRA

**S**exu-hezkuntza genitaletatik eta harreman erotikotatik haratago doan errealitatea da, eta hori ume eta gazteei erakustea da egungo erronkarik handiena. Hala, Bea Sever elkarrizketa eta azalpenaren aldekoa izan arren, haur eta nerabeek ikusten dutenagaz askoz gehiago ikasten dutela nabarmendu du.

## **Nola definituko zenuke sexu-hezkuntza?**

Hezkuntza sexuala aipatzen dugunean, beti joaten zaigu pentsamendua ikastetxetara, formakuntzetara eta horrelako hitzaldietara, baina, egia esan, hezkuntza sexuala jaiotzen garenetik jasotzen dugu, leku guztietan. Guk geuk heldu gisa egiten dugu: nola jantzen garen emakume/gizon bezala, zer jokabide ditugun... Dena da hezkuntza sexuala. Batzuetan, familiarekin hitz egiten dudanean, esaten didate haiek ez dutela ezer egin. Ezin da ez egin. Garen pertsonaren inguruko edozein informazio heziketa da. Gertatzen dena da sexu hitza entzuten dugunean pentsamendua joaten zaigula harreman erotikotara, eta, gainera, harreman erotikoz zehatz batzuetara: emakumea eta gizona, koittoa... Baina hori baino askoz zabalagoa da hezkuntza sexuala. Izan ere, horren oinarria da norberak bere burua ezagutzea, hori onartzeko, maitatzeko eta harreman osasuntsuak eraiki ahal izateko. Horretarako landu behar dugu autoestimua, gure gorputzaren ezagutza, sentimenduak nola adierazi...

## **Badago adin konkreturik sexuaz esplizituko hitz egiteko?**

Noiz hasiko zinateke haur bati sukaldaritzaren inguruan hitz egiten? Edo trafikoari buruz hitz egiten? Bada, adinaren arabera. Eta askotan galderak eta elkarrizketak era naturalean sortzen dira. Askotan ere uste dugu hitzaldi feminista bat bota behar dugula, baina, gero, etxean, aitak konpontzen du bonbilla. Haurrek gehiago ikasten dute ikusten dutenarekin, entzuten



**«Gorputz biluziak ikustera ohituta dauden gazteek autoestimua hobea dute eta euren gorputza hobeto onartzen dute»**

BEA SEVER  
SEXOLOGOA

## **Pornoa**

**«Pornoa debekatu nahian gabiltza, baina pornoak ez du hezteko funtziorik, ez dago horretarako eginda. Fantasiarako dago, eta erabilgarria izan daiteke horiek norbaiti bere modura betetzen badizkio»**



Irakurri ezazu elkarrizketa osoa [www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus) webgunean edo goiko QR kodigoa eskaneatuta.

dutenarekin baino. Gu gara eredu eta adibide, eta, horrela, hezkuntza egiten ari gara. Betidanik hitz egin badira gai horiek etxean eta, gainera, ikusten badituzu gurasoak – guraso bi badituzu – elkarri musukatzen eta ukitzen, beste modu baten jasoko duzu. Hau da, besarkatzen eta ukitzen baditugu gure familiarrekoak, seme-alabak... Hor ere hezkuntza egiten ari gara, nola adierazten diren etxean sentipenak, alegia.

## **Nola kudeatu ditzakegu etxean etxetik kanpo jasotzen diren irakaspenak?**

Guk etxean hazia jartzen dugu, eta hortik aurrera bere bidea egingo du umeak, pertsona indibiduala delako. Jasoko ditu *input* horiek etxetik, kanpotik... Azken finean, gizarte batean bizi gara eta ezin dugu bertatik at hezi. Gauza batzuetan balioko zaie gurea eta, beste batzuetan, ez. Garrantzitsuagoa da kritikoak izaten irakastea. Horregatik, aitzakia ona izaten da zerbait irratian entzuten dugunean edo pelikula bat ikusten ari garenean hori komentatzea. Arreta jartzea guk zer esaten dugun, adibidez, kaletik pertsona bat ikusten dugunean gorpuzkera edo adierazpen zehatz baten. Gero, abesti bat entzuten badute edo lagunekin beste iruzkin batzuk entzuten badituzte, jakingo dute kritikoak izaten.

## **Nola ikusten duzu gaur egungo hezkuntza sexuala?**

Beti esaten dugu sexuen hezkuntza egiten dela ikastetxeren baten, noizean behin eta orduren batean. Ez dago integratuta, ez da maila guztietan ematen eta ez dago modu formal batean egituratuta. Eztabaida ere badago ea horrela izan beharko litzatekeen. Balioak bezala, ideala izango litzateke bakoitzak bereak etxean jasotzea. Baina askotan gurasoak beldurtu egiten dira, haiek ez dutelako hezkuntza hori ere jaso. Deigarria da, izan ere, tailerrak antolatzen direnean guraso-eskoletan, ez direlako joaten ere. Beraz, ez dago ez etxean, ez eskolan modu egituratu batean. Orduan, hutsune hori pornoak betetzen du. Hasieran zen haurdun ez gelditzea, gero, infekzioak ez kutsatzea. Orain, pornoa. Beti dira alarmak eta arriskuak. Noiz hitz egingo diegu plazeri buruz, onurei buruz, harreman gozagarrii buruz? ◀





**Euskarari atara kontuk!**

JOANES ATXA OLAIZ

## Algorta eta Maule, ezin gertuago

**E**uskal Herria anitza da bere luze zabalean. Elkarrengandik urrutien bizi garen euskal hiztunak Bizkaian eta Zuberoan gaude; 200 km baino gehiagoko tartea dago. Hala, ahoan darabilgun euskarak ere, bide autonomoa egin du kasu bakoitzean, eta azaletik begiratuta, badirudi gure hizkerek lotura gutxi dutela.

Dena den, bizkaitarren eta zuberotarren arteko elkarguneak asko dira, baita hizkuntzari dagokionean ere. Arrazoiak arrazoi, Zuberoako eta Bizkaiko euskalkiek hainbat bereizgarri elkarbanatzen dituzte, euskararen lurralde osoan ematen direnez gainera. Horietatik hiru aipatuko ditugu.

Ahoskerari dagokionez, jota letraren ahoskera bi zaku handitan bereizten da euskaraz: *yoan* edo *joan* (jota bortitzarekin). Bizkaian eta Zuberoan lehen moldean ahoskatzen da hizki hori, eta Gipuzkoan zehar, berriz, molde bortitzarekin. Gainera, Zuberoako jotaren ahoskera, asko hurbiltzen zaio kostaldeko herrietan ematen den ahoskerari, Bermeon ahoskatzen den bezala, kutsu berezi bat eman eta kasik /dx/ hotsa entzuten dugularik.

Bestalde, -e letraz amaitzen diren hitzei -a artikulua eranstea, -e hizkia -i bihurtzen da Zuberoan, eta baita Bizkaiko eremu batzuetan ere. Adibidez, *kafe* + a = *kafia*. Fenomeno honi disimilazioa esaten zaio eta oso ohikoa da gure hizkuntzan.

Azkenik, Uribe Kostan eta Zuberoan modu berean adierazten dugun hitzetako bat da bazkalordutik hasi eta afalordura arteko tartea izendatzeko erabiltzen duguna. Arratsaldeari, Algortan eta Maulen, *arrasti* esaten diogu.

Hara non topatu dugun aitzakia polit bat, Zuberoara yoan, bertan kafia hartu, eta arrasti goxo bat igarotzeko. ◀

**Busterri Herri Antzerkia** Historia bizia

# Plentziaren historian sakontzeko antzerkia ari dira prestatzen

**Daborduko kalean da Busterri Herri Antzerkiak 2023an egindako antzezlanaren liburua; aurten, historian aurrera egin eta Isuskitzaren historia kontatuko duen izen bereko antzezlanara taularatuko dute urrian.**



Liburuaren eta aurtengo obraren aurkezpena. BUSTERRI HERRI ANTZERKIA

**G**orliz eta Plentziako antzerkizaleak biltzen dituen Busterri Herri Antzerkia taldea proposamen bikoi-tzagaz dator aurten.

Batetik, 2023ko urrian Matxalen de Pedroken zuzendaritzapean taularatu zuten *1836: su biren artean* antzezlanaren inguruko liburua argitaratu du elkarteak, A Fortiori argitaletxearen eskutik. Jokin de Pedro egilearen hitzetan, «liburuan, Lehen Gerra Karlistako jazoe-ra historikoan oinarritua, gehienbat Plentziak 1836an jaso zuen hiru eguneko setioa kontatzen da». Ez da tankera horretako lehen argitalpena; izan ere, antzerki-taldeak bi urterik behin egin ohi dituen antzerkiak liburuan ere jaso izan ditu De Pedrok, obraren testu osoagaz, horretan parte hartu duten 70 lagun ingururen izenakaz, testuinguru historikoagaz eta argazkiakaz, besteak beste.

Beste aldetik, iazko urriaren 30ean egin zuten liburuaren aurkezpenean, 2025eko antzezlanaren izena ere argitu zuten: *Isuskitza*. Taldeak taularatuko duen bosgarren antzezlanara izango da eta urriaren hasieran emanaldi bi eskainiko dituzte, Plentzian eta Gorlizen bana.

«Iazko antzezlanaren bukaeran iradokitzen zen Plentziak, gerraren eta Urbanei (herriko emakumez osaturiko miliziak) ezarritako isunen ondorioz, herri-lurrak saltzea beste irtenbiderik ez zuela izango zorrei aurre egiteko. Enkantera irten ziren Isuskitzako lurrak Nikolas Olagibel plentziarrak eskuratu zituen 1855ean, eta Gipuzkoako familia etorkin batzuk ezarri zituen bertan. *Isuskitza* antzerkiak garai hartatik gure egunetara arte Plentziako eskualde horrek zelako bila-kaera izango duen kontatuko du», aurreratu du De Pedrok. ◀

**Naiara Arnedo** *Heisenberg* antzezlanara

## «Pertsonaiak beren sentimendu eta beharrek biluzten dira»

**Naiara Arnedo eta Ramon Agirre aktoreek gorpuzten dute *Heisenberg* antzezlaneko narratiba. Maitasuna eta komedia nagusi diren arren, zaugarritasunak eszena bakoitza zipriztintzen du.**

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

**U**stekabeko topaketa bat da *Heisenberg* obraren oinarria. Georgie Burnsek, 42 urteko emakumeak, Alex Priesteri, 75 urteko gizonari, musu emango dio garondoan, bere aita delakoan. Alabaina, bere aita hilda dago. Oker horretatik, pertsonaia biak elkar ezagutu eta harreman erromantiko bat eraikiko dute. Urtarrilaren 25ean Muxikebarri Antzokian egongo da ikusgai obra, horregatik, Naiara Arnedo aktoreagaz berba egiteko parada izan dugu piezaren nondik norakoak ezagutzeko.

**Zeintzuk dira obraren gai nagusiak?** *Heisenberg* fisiko bat zen eta berak formula bat egin zuen ziurtasun gabeko printzipioa azalduz. Dena hasten da ekintza batekin, eta obran azaltzen da nola ziurgabetasun horretatik abiatuta bi pertsonak harreman bat garatu dezaketen. Beraz, nik uste gai nagusia maitasuna dela. Azkenean, bi pertsonaiak biluzten dira beren sentimenduekin eta beharrek. Komedia erromantiko bat da, baina ez da guztiz arrosa. Bizitza ez da Disney, batzuetan ez da erraza eta, hori, obran islatzen da.

**Nolakoa izan da zure pertsonaia antzeztea?** Hasieran, gidoia irakurri nuenean, ez nekien nondik hartu pertsonaia hau. Lurrikara bat da, sua bera. Gai batez hitz egiten ari da, eta, arin-arin, beste batera pasatzen da. Zoramenaren niretzako hasieran pertsonaia. Orduan, etxean inoiz jarri ez nuen soineko bat jantzi nuen, oraindik ere ez nekiena noiz estreinatuko nuen. Soineko hori jarri nuenean, pertsonaia hizketan hasi zen. Eta hortik aurrera oso erraza bilakatu zen pertsonaia ulertzea. Berez, hunkitu egiten naiz, asko irakatsi didalako bere zaugarritasunarekin; erakutsi dit ez garela hain ezberdi-



Naiara Arnedo eta Ramon Agirre aktoreak dira, eszenan. TANTTAKA

**«Ramon Agirre eta biok oso ondo eraman gara. Oso erraza izan da berarekin lan egitea. Gainera, auzo berean bizi gara eta lagunak bilakatu gara azkenean»**

nak. Pertsonaia ulertzea ezinezkoa iruditzenetik oso ondo ulertzerara igaro naiz.

**Obran 33 urte nagusiago den pertsona batez maitemintzen da zure pertsonaia. Gai hori nola hartu du jendeak?** Jendea harritu egiten da hasieran, baina gero iruditzen zaie adin ezberdintasun hori ez dela nabaritzen. Azkenean, harreman bat da eta hori da ikusten dena. Ahazten zara adinaz, eta ikusten dituzu bi pertsonaia haien beharrak batak besteari betetzen.

**Zergatik gomendatu jendeari obra?** Ezberdina delako, ez dut horrelako bestelako obrarik ikusi. Ikuslegoak gauza bitxi bat ikusiko du. Eszenografia oso biluzia da: bi aulkirekin eta lau elementu gehiagorekin batera lan egiten dugu. Gainera, fokuek eremua inguratzen dute eta oso toki txikian eta intimoan lan egiten dugu. Uste dut jendeak oso ondo pasatuko duela bi lagun intimitatean ikustean. Eszena bakoitzak guztia hankaz gora uzten du eta segituan hurrengo agertzen da. Orduan, momenturo zaude esperoan ea zer gehiago gertatuko den. Beraz, jendea animatu nahi dut antzokira etortzeko, kulturak pertsonen laguntza behar duelako. Ziur nago oso ondo pasatuko dutela, eta guk gure onena emango dugu hori gertatzeko. ◀



## Urteko azken errittoa

ARITZA BERGARA Idazlea



**S**olstizioetan, erritu jakin batzuk egitean, landare batzuek, suak eta urak propietate magikoak hartzen dituzte. Udako solstizioan sua piztu eta gaintik salto egiten da; negukoan –egungo egutegian data apur bat aldatuta–, zenbait herritan (Baztan, Basaburua, Goñi, Imoz, Larraun, Burunda eta Arakil) iturri konkretuetara hurbildu, eta, urte amaierako kanpai-hotsekin batera, ura pitxerretan hartzen zuten zenbait salmo abesten zituzten bitartean: «Ur goiena, ur barrena /urte berri egun ona». Ur hori bizilagunei eramane eta koplen trukean oparia jasotzen zuten. Ur hori gorputza eta arima garbitzeko edaten zuten.

Ur goienaz eta ur barrenaz hitz egiten zuten uste zutelako zeruan ura zegoela, goialdetik euria ari baitzuen; hortik ur goiena (goiko ura). Halaber, lurpean aintzira handi bat zegoela ere uste zuten, eta handik zetozela iturburuak; hortik ur barrenarena (barruko ura). Horregatik, urtea hastean, bi uretara jo behar zuten, goikora eta behekoa, ur berri hori edan aurretik.

Ur-partikula (ura) urte hitzaren lehen silaba da, lau urtarotetan zehar uraren zikloaren baliokidea izango litzatekeena. Arbasoen pentsamoldearen barruan, ur eta urte arteko lotura dago. Ur berria, ur berria izateaz gain, urte berri edo urte berriaren baliokidea izango litzateke.

## Etxebizitza gutziontzat!

ARANTZA GUTIERREZ Polimilitante feminista



**A**zken boladan asko hitz egiten ari da etxebizitza izateko eskubideaz, edo, hobeto esanda, horren gabeziak. Paperean jasota badago ere, ez du inolako bermerik, eta merkatu basatiaren menpe daude prezioak. Etengabe gorantza, espekulazioaren mesedetan, eta gero eta ordainezinoagoak askorentzat.

Alokairuak mugatzea eta etxebizitza sozialak saldu ordez, errentan jartzea dira aurreikusitako neurri batzuk. Ados. Baina aldi berean, *mainstream* komunikabideetatik, publizitatetik (berezioki aseguru eta segurtasun enpresak) eta eskuineko zenbait bozeramaileraren ahotsetan beldurraren diskurtsoa hedatzen ari da, balizko okupazioaren arazoa lehenen lerroan jarritz.

Berriz ere segurtasuna eta beldurra, batzuen interes espekulatiboaren alde –ez hainbeste etxejabe «txikien» mesedetan–. Koktel horri arrazismoa gehitzen badiogu, ekaitz perfektua dugu. Bertakoztat, berezioki gaztetxoztat, jaio eta bizi diren herrian edo eskualdean geratzea ia ezinezkoa bazaie, imajina dezagun migratzaileen egoera. Tamalez, bizilekurik gabe ezin dira gainerako eskubideak garatu, ezta bizitza duina eraiki ere. Horregatik, OEEtik pentsatu dugu pertsona guztion etxebizitza-eskubidearen aldarrikapenean beste ekintzaileekin batera indarrak metatzea.

## Horoskopoa



### Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Urte berria ezin baino okerrago hasi duzu. Erritu bat egin beharko duzu zure gorputza begizkotik garbitzeko. Hartu zita sorginagaz!



### Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Katu edo txakur bat gura duzu bidelagun gisa, baina benetan duzu hori zaintzeko denborarik? Erantzukizuna handia da, ondo pentsa!



### Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Zure ametsetako etxea gertu dago: ez etsi, eutsi! Laster, inoiz baino erosoago egongo zara zure sofa berrian etzanda.



### Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Nerabazaroko ex horrek urte berria zoriondu zizunetik amets arraroak dituzu. Infusio bat hartu ohera sartu aurretik; laster pasatuko da, lasai.



### Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Gabonetan edan eta edan aritu zara lagun eta familiagaz. Orain naturagaz eta kirolagaz birko- nektatzeko garaia iritsi da!



### Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Lo, lo eta lo. Hori besterik ez duzu egin gura. Altxa ohetik! Bizitasuna ez da berariaz etortzen, astindu alferkeria!



### Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Non ikusten duzu gehiago zerua, Instagrameko argazkietan ala bizitza errealean? Erantzuna lehenengoa bada, amatatu mugikorra!



### Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Amorruak frustrazioa dakar eta beti ezin duzu haserrea kanporatu. Jarri musika teknoa eta jaurti ostikoak airera su hori askatzeko!



### Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Antzerkia benetan gustuko duzu, baina ez soilik ikusle gisa. Hau da behar zenuen seinalea: auzartu eta eman izena antzerki klaseetan!



### Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Pertsona horregaz txoratuta zaude eta fantasia mundu batean murgilduta zabilzate. Disfrutatu eta ez utzi lekurik beldurrari.



### Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Lagun horri egia esan behar diozu, nahiz eta mingarria izan: Bizarzuri ez da existitzen, Olen-tzero eta Mari Domingi dira!



### Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Milaka ideia eta proiektu dituzu buruan, baina ez dakizu zintzoki zer eskatzen dizun gorputzak. Has zaitez mantso-mantso.

GURE  
GARIA

GURE  
OGIA

ORAIN  
OGI  
INTEGRALA  
ere bai

EUSKAL  
OGIA

GURE GARIA, GURE OGIA  
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN



EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OGIAN  
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA  
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN  
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

ALGORTA

PROST CHARCUTERÍA ALEMANA - Algortako Etorbidea, 69

ERANDIO

BIZKARRA - Txinboak Kalea, 2

hazi

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,  
NEKAZARITZA ETA  
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,  
DESARROLLO RURAL,  
AGRICULTURA Y PESCA



Marisa Lago Otxoa Ibilketa nordikoa

# «Ibilketa nordikoaren teknika erraza da, baina ez da intuitiboa»

**2012tik, Gorlizen ospatzen da Ibilketa Nordikoaren Nazioarteko Eguna. Hala, Marisa Lago Otxoa azaldu digu zergatik den horren osasungarria kirol hori.**

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

**I**bilketa nordikoa Finlandian jaio zen 1930 inguruan, eski profesionaleko entrenamendu gisa. 2000az geroztik, leku ezberdinetara hedatu zen eta, 2012an, Cristina Gonzalez Castrosek Bizkaira ekarri zuen Londresetik, Marisa Lagoren mentoreak. Hala, egun, Lago Otxoa Euskaditrek enpresaren barnean dago ibilketa nordikoa sustatzen.

**Hasteko, zer da ibilketa nordikoa?** 2018tik Mendi Federazioaren barruan dagoen kirol bat da. Makila berezi bi erabiltzen ditugu, ez dira mendiko makilen berdinak, eta horiek aurrerantz bultzatzen laguntzen digute. Funtsean, makilen lokarrian bereizten dira: ibilketa nordikoko bastoien kasuan, eskuari ezin hobeto egokitzen zaizkion lokarriak dira, eta behar bezala mugitzea ahalbidetzen dute, makila erori gabe. Teknika erraza da, baina ez da intuitiboa; horregatik, hastapen-ikastaro bat egitea gomendatzen dugu, ibilketa nordikoa modu seguruan praktikatzen hasteko.

**Zeintzuk dira kirol honen onura nagusiak?** Kirol hau egiteko keinu guztiak ibiltzea bezalakoak dira: hankak mugitzen dira, besoak, goiko trena... Ibiltzearen gehigarri bat bezalakoak da. Horregatik, patologia dituzten pertsonentzat oso onuragarria da. Kirol hau Euskal Herrian sartu zenean, gaixotasunak zituzten pertsonentzako bideratuta zegoen jarduera gisa aurkeztu zen, gorputza oso modu simetrikoan mugitzen delako. Gainera, taldean egiten den kirola da, beraz, onura psikosozialak ere dakartza. Hiri-ingurunean edo



## Euskaditrek

Marisa Lago Otxoa Euskaditrek enpresako kide da. Horrek, mendi-ibilaldiak antolatzen ditu Hego Euskal Herri osotik. Gainera, ibilketa nordikoari buruzko ikastaroak egiten dituzte, baita ibilbide gidatuak ere. Gorlizen, esaterako, hilean behin ibilketa nordikoko irteera bat egiten dute.

natura-ingurunean egin daiteke, beraz, kirola egiten den bitartean inguruko altxor kulturalak ere ezagutzeko balio du.

**Eta zeintzuk esango zenituzke direla bere balio nagusiak?** Balio nagusiak dira belu-naldien artekoa dela eta, gainera, oso inklusiboa dela. Ez du gutxieneko forma fisikorik behar eta bakoitzak bere erara praktikatu dezake. Hala, oso jarduera integratzailea da, mundu osoan praktika baitaiteke, edozein adinetan. Aurrekoan, Gizare elkarteko kideakaz ibilketa nordikoa egin genuen, Gorlizen. Ikusmen-urritasuna duten pertsonak dira, eta hondartzan egin genuen ibilaldia, oztopo arkitektonikorik ez zegoelako.

**Nondik egin ohi dituzue irteerak?** Uribe Kostak abantaila zoragarria du, erliebe leun samrarak dituelako. Horrek aukera ematen digu ibilaldi luzeak egiteko, malda moderatu eta leunakaz. Erliebe leuna interesgarria da teknika praktikatzeke; izan ere, makilak inklinatuta daudenez, lur batzuetan ezin dugu ondo egin. Esaterako, kostaldetik flyschak ezagutu ditugu; Urdulizetik Berangora joaten gara Guda Zibileko lubakiez hitz egitera; eta Gorlizetik askotan ibiltzen gara. Beraz, kirola aitzakia da Uribe Kostako txokoak ezagutzeko eta duen aberastasun kulturalari balioa emateko.

**Zer garrantzia du kirol honek Gorlizen?** Duela urte askotatik kirol asko sustatu duen udalerrria da Gorliz. Inguru aparta da ibilketa nordikorako, eta bertako Udalak asko lagundu du hori aurrera eramaten. 2012tik, Ibilketa Nordikoaren Nazioarteko Egunekeo ekitaldia egiten da bertan, zehazki, maiatzean. Mundu mailako ekitaldia da eta herrialde askotariko kirolariak etortzen dira. Iaz 200 lagun elkartu ginen: beroketa bat egin genuen musikagaz eta goiz bateko ibilbidea egin genuen ibilketa nordikoaz gozatzeko. Gainera, duela hiru urtetik Gorlizen egiten da Ibilketa Nordikoaren Kopa ere. ◀

Inhar Ugarte Euskal pilotaria

# «Nire ametsa da euskal selekzioarekin munduko txapelketa batean aritzea»



Inhar Ugarte pilotaria, artxiboko irudi batean. HO DEI TORRES

IKER RINCON MORENO ▶

**E**uskadiko Euskal Pilota Federazioaren ofizialtasuna onartu zuen abenduaren 28an Nazioarteko Pilota Federazioak. Hori horrela, erabakia behin betikotuko balitz –Espainiako Federazioak helegitea aurkeztuko duela iragarri du–, EAeko pilotariek nazioarteko lehiaketetan Euskadiko selekzioagaz parte hartzeko aukera izango lukete, hala nola 2026ko Munduko Txapelketan. Erabakia besoak zabalik hartu du Inhar Ugarte pilotari getxoartzarrak, zeinak behin baino gehiagotan Espainiako selekzioagaz parte hartzeari uko egin dion.

**Zelan hartu duzu Euskadiko selekzioaren ofizialtasuna?** Amets bat bete dela esango nuke. Beti izan dut amets euskal selekzioarekin munduko txapelketa batean parte hartzeko aukera izatea, eta, dena ondo bidean, espero dut 2026koan horretan parte hartzeko aukera izatea, nahiz eta zahartzen hasia naizen. Nire iritziz, erabat logikoa da euskal pilotan euskal selekzioak parte hartzea. Hala ere, Euskadiko Federazioak lortu du FIPVn (Euskal Pilotaren Nazioarteko Federazioa) ofizialtasuna, eta orain ikusi beharko da zelan lortu daitekeen zazpi probintzietako pilotariak selekzioaren

barruan egotea. Nolanahi ere, bide berri bat ireki dela uste dut.

**Zer aldaketa ekarriko du horrek kirolarientzako?** Kirola profesionalizatuko da eta erakunde publiko zein pribatuek diru gehiago inbertituko dutela uste dut. Gainera, kirolarientzako beka eta dirulaguntza gehiago emango direla uste dut.

**Espainiako Federazioak, baina, helegitea aurkeztuko duela iragarri du...** Argi zegoen, baina, esaten dutenez, haiek egindako akats baten ondorioz ezin izan ziren FIPVko bilera orokorrean egon, eta hori modu legalean egin zela aipatu dute. Beraz, espero dut errekurtsioak aurrera ez egitea eta erabakiak betearaztea.

**Zer esango zenieke erabaki hori «gehiagikeria nazionalista» derritzenei?** Nazionalista espainolek esaten dute erabaki hau politikoa dela, Espainiaren kontra egitearren egin dela eta Espainia «zatitzen» duela. Noski erabaki politikoa dela. Euskaldun sentitzen garenek eta euskal pilota maite dugun askok faltan botatzen genuen erabakia da hau. Baina haien iritzia ere ulertu daiteke: Euskadiko Euskal Pilota Federazioa ofizial izatea nahi ez dutenen jarrera ez al da politikoa? Noski politikoa dela. ◀

Getxo Arraun Kluba

## Irregularitasunak salatu dituzte elkartearen kudeaketan



Salaketa publiko egin duten arraunlariak.

**K**luba «bahituta» dutela salatu duten kirolariei erantzunez, Getxoko Arraun Elkarteak esan du edozein bazkideren onarpen-prozesua ez dela automatikoa, eta zuzendaritza-organoaren aldeko iritzia behar duela. Izan ere, elkartekoen arabera, onarpenakekainaren 22ko 163/2010 Dekretuak eta klubaren estatutu sozialek arautzen dute, eta horrek esan gura duela edozein eskaera formal zuzendaritza-batzordeak «diskrezionaliki» baloratzeko ahalmena duela, kasu bakoitzaren inguruabarrak kontuan hartuta. Ondorioz, elkarteak adierazi du onarpen-prozesua ez dela automatikoa, eta zuzendaritzaren aldeko iritzia behar duela.

Hala ere, klubak azpimarratu du eskaera bat ez onartzeak ez duela eragozten interesa duten pertsonen klubaren jardueretan parte hartzea edo laguntzea.

Klubaren estatutuen seigarren artikulua dio hiru baldintza betetzen dituzten pertsonak izan daitezkeela bazkide, hau da, adinez nagusiak direnak, dagokion sarrera-kuota ordaintzen dutenak eta kirol-elkartearen helburuetan interesa dutenak. Zazpigarrenak, aldiz, zehazten du bazkide izateko eskaera presidenteari jakinarazi behar zaiola, eta horrek jakinaraziko diola zuzendaritzari bertako kideek aurreko artikuluan (seigarrenak) zehazten diren baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko. Bete ezean, eskaerari uko egiteko ahalmena izango luketela.

Kasu honetan, senior mailako traineru bat osatzeko bazkide izan gura duten 34 kirolariek deitoratu dute den-denek eman beharreko pausoak eman dituztela, eta baldintza guztiak betetzen dituztela. Hori horrela, ez dute ulertzen zer dela eta ukatu zaien eskubide hori. Kontuak horrela, bide judizialera joko dutela iragarri dute. ◀



# Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:



AURREKO  
SOLUZIOAK

## Hara!

Besterena baimenik gabe hartzen duenari nola esaten diozu zuk? Lapur? Badu beste izenik ere, hemen sei aurkituko dituzu. Zirriborra itzazu zuzenak ez diren hirurak.



TXORIBURU

ZIRTOLARI

XISKALARI

EBASLE

LITXARRERO

HARRAPARI


HIGLINGARRI

ESKULUZE

OHOIN

## Engainagarriak


Sei biribil hauetatik bi iruditik hartuta daude eta gainontzeko laurak engainagarriak dira, hau da, ez datoz guztiz bat irudiagaz. Bereiz itzazu. Eman kolorea gure laguntxo hauei, merezi dute eta.



## Lapurrak!

Zenbat lapur ikusten dituzu etxe barruan, inguruan edo barrura sartu guran?

Bide batez, margotu, eta, ondoren, koloreztatu irudi osoa, artista bikaina zara eta.



**Hamarrekoa** Aurkitu eskiatzaile bien artean dauden aldeak. 10 dira guztira





ARTXIBOKO IRUDIA.

**A**buztuko domeka arrasti lasai batean, jendea hondar-tza-egun luze batetik etxera bueltatzen ari zela, tragedia gertatu zen. 1970eko abuztuaren 9an, 19:15ak inguruan, Plentziatik Bilbora bidean gainezka zihoan tren batek aurrez aurre talka egin zuen Urduliztik hutsik zetorren beste tren bategaz. Sarraskia izugarria izan zen: 33 hildako eta 160 zauritu baino gehiago. Bizkaian izandako tren-istripurik larriena izan zen hura.

Ezbeharrak Barrikako tartean gertatu zen, ikuspen gutxiko bihurgune batean. 45 km/h-ko abiadurara zihoazen trenen lehen bagoiak erabat birrinduta geratu ziren, bidaiariak metalzko eta egurrezko armazoiak eta kristal hautsien artean harrapatuz. Beste asko airean atera ziren, eta zorte gehien izan zutenek beren kabuz ihes egitea lortu zuten, zorabiatuta eta zaurituta. «Zarata izugarria, oihiak, burdinak alde guztietatik, odola eta nahasmen handia», deskribatu zuen istriputik bizirik atera zen neska batek.

Lehen sorosleak DYako boluntarioak eta inguruko bizilagunak izan ziren, eta egoerak eragindako kaosa kudeatu behar izan zuten biktimak erreskatatzeko. Egun horretan, suhiltzailak eta larrialdi-zerbitzuek goizaldera arte egin behar izan

zuten lan harrapatuta geratu zirenak askatzeko eta zaurituak ospitaleetara eramateko. Bitartean, Urdulizko tren-geltokia behin-behineko hil-biltegi bihurtu zen, non gorpuak multzokatzen zituzten identifikatuak izateko.

Gerora egin ziren ikerketek giza akats bati egotzi zioten istripua: Urdulizko geltokiko buruak lau egun zeramatzan lanean, laguntzailerik gabe 16 orduko txanda nekagarriak egiten. Horren eraginez, hutsik zihoan trenari Plentziara bidean ateratzeko baimena eman zion, bide bakarra okupatuta zegoela ohartu gabe. Konturatu zenean, energia elektrikoa moztu zuen talka saihesten saiatzeko, baina berandu zen daborduko.

Lan-baldintza txarrak nabarmenak izan arren, erantzukizuna berari bakarrik egotzi eta kartzelan sartu zuten. Tragediaren pisuak markatuta, espexetik irten eta denbora gutxira hil egin zen, bere senideen arabera, «nahigabearen ondorioz».

Ezbeharrak kaltetutako familietan orbainak uzteaz gain, lan-baldintza hobek eta segurtasun handiagoa izateko beharri buruzko lezioak ere utzi zituen. Gaur egun, Metro Bilbaoren trenak egiten dute ibilbide hori, baina, urteakaz garatutako segurtasun-neurriei esker, halako istripu bat berriz gertatzea ia pentsaezina da. ◀





# «Drakula Pécs erdigunean bizi izan zen»

IKER RINCON MORENO ▶

**B**otond Ódor Pécs hiriko opera-abeslari hungariarra da, eta bere ibilbide artistikoak Euskal Herrira ekarri du, maitasunak eta euskal kulturarekiko jakin-minak bultzatuta. Duela urte eta erdi iritsi zen Getxora, bikotekidea bisitatzeko asmoz, eta ordutik beragaz bizi da hemen. Dioenez, heldu zenean euskararen ezagutza handirik ez zuen arren, apurka-apurka horretan murgildu eta ikasteko ahaleginetan dabil.

Opera kantaria izanik, lan handia egiten du bere aberrian, Hungarian, baina baita Euskal Herrian ere. Are, datozen hilabeteetan Guridiren *Mari Eli* opera aurkeztuko du Arriaga Antzokian, besteak beste. Gaur egun, ordea, Szegeden dabil kantatzen, Mozarten *Die Zauberflöte* eta *Marica grófnó* operetan lanean.

Hungariara begira jarriz gero, Ódorrek buruan ditu hango janari tipikoak, «oso astunak» gehienak, hala nola *gulyásleves*, *töltött paprika* eta *brassói apró pecsénye*, eta ospakizunetan ezinbestekoa den edaria, *pálinka*, alkohol-mai-

la altuko likorea. «Ia denek edaten dute, baina ia inork ez du gustuko. Hala ere, tradiziozko erritual edo su-proba moduko bat da, eta denek igaro behar dute».

Kulturari dagokionez, Hungariakoa aberatsa da; horren adierazle da bere hiria, Pécs, Europako Kulturaren Hiriburu izendatu izana 2010ean. «Ospetsua da *kórus* musikaren tradizioagatik». Aztarna historiko ugari dituen hiria ere bada, duela 80.000 urtekoak aurkitu baitira bertan. Hala ere, Ódorrek beste pertsonaia bat ekarri gura izan du gogora, XV. mendeko Valakiako printzea: Vlad III.a, edo Drakula. Azaldu duenez, ikertzaile batzuen arabera, odol-xurgatzaile ezagunena inspiratu zuen pertsonaia Pécsen bizi izan zen denbora batez, Plaza Nagusiaren inguruan.

Eta, nola ez, Hungarian bisitatu beharreko beste hiri bat Budapest dela nabarmendu du, hark gordetzen dituen eta garai ezberdinetakoak diren dozenaka terma-bainu eta -iturriak. Gainera, hiri «erraldoia» izanik, ia edozein momentutan «sorpresak» topa ditzakezula azpimarratu du. Animatuko zara ezagutzera?



**Botond Ódor**


**Nongoa**  
Pécs.

**Adina**  
33 urte.

**Zertan dabil**  
Opera abeslaria.

**Noiz heldu zinen?**  
Duela urte eta erdi inguru.

**Noiz arte bertan?**  
Auskalo.



**Lurraldea**  
Hungaria.

**Azalera**  
93.025 km<sup>2</sup>.

**Hiriburua**  
Budapest.

**Biztanleria**  
9.678.000 (2023).

**Hizkuntzak**  
Hizkuntza ofiziala hungariera (magyar) da, fino ugrikoa, baina badira erabiltzen diren beste hizkuntza batzuk, hala nola eslovakiera eta esloveniera.

**Moneta**  
Hungariar forinta.



# Zergatik irakurtzen duzu HIRUKA?



**FABIO PEREZ**  
ALGORTA

Eskualdean informazioa euskaraz jasotzeko aukera oso ona delako irakurtzen dut. Bertan agertzen diren argazkiak asko gustatzen zaizkit, eta erreportajeak ere oso txukunak izaten dira. Aspaldiko partez ezagutzen dut proiektua, UK garaitik, eta, normalean, paperean irakurtzen dut.



**GARAZI ELGEZABAL**  
ALGORTA

Gustuko dut askotan herriko jende ezaguna ikusten dudalako. Euren elkarrizketak irakurtzen ditut eta haien proiektuen berri izaten dut. Sareetan, webgunean eta paperean irakurtzen dut. Modernoa eta erakargarria da, eta informatzeko eta momentu goxoak pasatzeko ere balio duela uste dut.



**AITZIBER AMAS**  
ALGORTA

HIRUKA sortu zenetik ezagutzen dut eta hurbil ditugun hainbat sortzaile ezagutzeko aukera ematen dit. Gainera, gure herrian zer dagoen jakiteko aukera bikaina da. Hitz gutxitan, hurbila eta beharrezkoa den euskarazko proiektua da. Normalean etxean edo bulegoan irakurtzen dut.



**IKER AGINAGA GARCIA**  
BERMEO

Errealitate txikiak ezagutzeko baliabide bat delako. Laburbilduz, hurbilekoa eta beharrezkoa da HIRUKA. Medio nazionalak ahalmen bat dute, baina eskualdean zer gertatzen den jakiteko tokiko hedabideek emango dizute hobeto ikuspegi orokor bat. Gehienbat sareetan eta webgunean irakurtzen dut.



**ALBERTO MARTINEZ**  
BILBO

HIRUKAK aukera ematen diolako jende guztiari bere iritzia emateko eta behar dutena adierazteko. Gainera, pertsonen beharrak identifikatzeko gai dira kazetariak. Horregatik, HIRUKA ezinbestekoa da niretzako. Nire taberna aldizkariaren banaketa puntua da, beraz, gehienbat paperean irakurtzen dut.



**GARAZI ARANGUREN**  
ALGORTA

Gaztea nintzenean, oroitzen dut beti zegoela UK aldizkariaren ale bat etxean, eta horren ostean HIRUKAren paperezko edizioa ere kontsumitu dut, herriko zein inguruko udalerrietan gertatzen denaz eta egiten denaz jakiteko baliagarria delako batez ere. Orokorrean, albiste horiek ez dira beste inon agertzen.



**MIKEL BARCENA**  
ALGORTA

Marka- eta forma-aldaketa egin zenean, naturaltasunez jarraitu dut HIRUKA irakurtzen. Gehien gustatzen zaidana da udalerrietako pertsona zein elkarteei egiten zaien tarte, komunitatean zein iritzi artikuluetan; tokiko informazioa emateaz gainera, horien guztien bozgorailua ere bada HIRUKA.



**ANDONI MARTIN ALDEOGARAY**  
LEIOA

HIRUKA irakurtzen dut eskualdeko eta bertoko komunikabide bat delako, gai askoren inguruko informazioa ematen duelako eta bertako elkarrizketa, erreportaje eta eduki ezberdinak interesgarriak iruditzen zaizkidalako. Ikastetxeetan irakurtzen dut gehienbat HIRUKA aldizkaria.

# hirukalagunen txokoa

# Sari ederrak eskura!

Zozketa

## Lana dantza-ikuskitzuna

Otsailaren 7an, 20:00etan. Jaiotz Osak eta Xabier Mujikak osatutako bikote sortzaileak pieza berria taularatuko du Muxikebarrin. Horretaz gozatu gura duzu? Bada, ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 2a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

## Unai Elorriagaren liburua

*Francesco Pasqualeren bosgarren arima*  
Unai Elorriagaren zazpigarren eleberria daukagu zuretzat, eta debalde gainera! Parte hartu zozketan, ez zara damutuko!

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 2a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.




Zozketa

## Eta zer? liburua

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, 5 urtetik gorako umeentzako liburu eder hau dugu zuri emateko. Galduko duzu lortzeko aukera? Bada, eman ezazu izena zozketan!

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 2a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



## Zelan egin HIRUKA lagun?

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna)

**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)

**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke,** Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.





# GUROT TALDEKA

*Txapelketa Berria!*



**Jolastu lagunekin eta sari ikaragarriak irabazi.  
Eman erruletari, galderak ondo erantzun eta irabazi puntuak zure taldearentzat.**

12-18 urte bitartean badituzu, 3 lagunez osatutako taldea sortu eta has zaitez jolasten.  
Galdera berriak dituzue, zuek izango zarete irabazleak?

ZIERBENA / AMOREBIETA-ETXANO / DURANGALDEA / ENKARTERRIKO MANKOMUNITATEA / ERANDIO / ETXEBARRI  
AKAO / GERNIKA-LUMO / **GETXO** / LEKEITIO / MUNGIA / SESTAO / TXONKOMUNITATEA / ERANDIO / ETXEBARRI  
ZIERBENA / AMOREBIETA-ETXANO / DURANGALDEA / ENKARTERRIKO MANKOMUNITATEA / URIBE KOSTA / ABANTO-ZIERBENA



Zure herriko bi talde onenek,  
sari handiak irabaziko dituzte!!



Talde irabazlea final handirako  
sailekatuko da eta familian gozatzeko  
bidaia eta esperientziak irabaziko ditu



Izen-ematea:  
urtarrilak 20 - otsailak 16



Talde lehiaketa:  
otsailak 17 - martxoak 23



Aurrez aurreko finala:  
apirilak 4



**Getxo**  
*bizi ezazu*

